

# Euskal Herriko Konfederaziorantz

**Joseba Felix Tobar-Arbulu**  
**EHUko irakaslea eta UEUko kidea**

Konfederazioa dugu aztergai, independentziara eramango lukeen konfederazioa. Independentzia autodeterminazio-eskubidearekin loturik dago. Kanporako autodeterminazioan Euskal Herria bere osotasunean hartu behar da. Barruko autodeterminazioan Baskongaden, Nafarroa Garaia eta Iparraldearen konfederazioa bultzatu behar da.

Ekonomian subiranotasun monetarioa eta ekonomikoa analizatzen dira. Horretarako, makroekonomian bankugintzak daukan eragina ikertzen da: hala kapital finantzario espekulatuzailea dela-eta nola kanpo-zorren zamaren inguruan zein stagflazioari irtenbidea emateko ahaleginean edota Europar Batasunean euroaren jaulkitzean izandako politika neoliberallean.

In this article confederation is the issue, a confederation which can lead to independence. Independence is linked to the right of self-determination. From outside, the Basque Country (Euskal Herria) has to be taken in its wholeness. From inside, the confederation must link together Vascongadas, Navarre and the North.

Monetary and economic sovereignty are analyzed. For this purpose, the outcome that banking has in macroeconomics is investigated: the problem of speculative financial capital or of foreign debt, also the one of stagflation and the neo-liberal politics used in the issuing of the euro.

## 1. Sarrera

XXI. mendean sartu gara eta hemengo ezker ofizialeko asko oraindik lotuta daude XIX. mendeko eskemei —Lenin, Mao eta arras gaindituriko parafernalia intelektual kaxkarrari, zaborrari alegia—, informatika-iraultzarekin batera bizi ditugun aldaketa sakon eta berriak kontuan eduki gabe. Teoria zaharkituak eta kapitalismo oso atzeratuak diren erregimen zapaltzaileak —deitutako sistema sozialistak— oraingoz dira goraipatuak zenbait bazterretan, eta izen ponposoen aitzakiaz —maiuskulaz, beti maiuskulaz, idatzitako Iraultza, Justizia, Bakea, eta abar—, batzuek oraindik sistema zaharkitu horiekin amesten dute. Gure aurrean gertatu diren sakoneko aldaketak analizatu eta ikertu barik, gutariko askotxok ez dugu ezer ikasi eta antzinako bulgatak errepikatzen ditugu exegesi berri gisa. Alta, desobedientzia zibileko aroan bizi gara. Gizarte-mugimenduen aro berri honetan lehengo eskemak erabat atzeratuak geratu dira.

Aro berri honetan independentzia da helburua, ez inolako autonomismoa<sup>1</sup>. Hori gero eta garbiago azaldu behar da. Beraz, epe laburreko eta epe ertaineko proposamenak loturik egon beharko lirатеke independentziaren aldeko estrategia baten barruan.

Zehaztu gabeko independentziaren eta erabat definiturik gabeko sozialismo baten izenean jende askotxo aritzen da gure txoko honetan. Independentzia hori interdependentzia baten barruan kokatu behar denik ez dut uste inork ukatuko lukeenik. Independentzia autodeterminazioaren bidez lortu behar da. Hortaz, autodeterminazioa da *hic et nunc* etengabe aldarrikatu behar dena. *Kanporako* autodeterminazioa Euskal Herri osorako, nahiz eta *barnerako*, taktika mailan eta epe ertainean, Baskongadetarako, Nafarroa Garairako eta Iparralderako *konfederazio* moduko antolaketa bat edo antzekoren bat proposatu.

Baina lehendabizi, Lizarra-Garazi itunean egon ziren indar guztien artean eginahal bereziak gauzatu behar dira, behin eta berriz, gauden putzu eta *impasse* honetatik irteteko.

Presoak hurbiltzea, edota haien aldeko hainbat eskakizun oso garrantzitsu (gaixo daudenena, kondenaren 3/4-ak bete dituztenena...) aldarrikatzea ez dut uste arazo sakonik denik akordioa lortzeko, daukaten garrantzia kendu gabe. Beste aldetik, Iparraldean, Nafarroa Garaian, eta Baskongadetan gauden egoera desberdinetatik abiatzea eta epe ertainerako Udalbiltza bezalako gain-erakunde operatibo bat prestatzea eta antolatzea, *menian bageunde*, ez litzateke zaila izanen.

Ekonomian subiranotasun monetarioa eta ekonomikoa da aztertu eta analizatu behar dena. Nahiko hedatua den sozialdemokrazia (baita ezker abertzale ortodoxoen artean ere!), onenean ere, neoliberalismo gordin honen kontra nolabaiteko hesia bada ere, kapitalismo hutsa besterik ez da. Eskematxoetatik irteteko eta ekonomia beste modu batez antolatzeko, badaude autore batzuk, batez ere

---

1. XXI. mendeari aurre egiteko, Euskal Herriaren independentzia politikoa *ezinbestekoa*, beharrezkoa da, baina ez nahikoa. Beste ekonomia mota bat behar da dauzkagun arazoak konpontzeko (Tobar-Arbulu, 1999).

monetak edo diruak daukan eragina kontuan edukitzen duten autoreak. Bankugintzak aparteko garrantzia dauka zientzia makroekonomiko berrian.

Langabeziarekin, inflazioarekin, kanpo-zorrenekin eta kapital finantzarioaren espekulazioarekin buka daiteke. Arazoak objektiboak dira; ez dagozkio inolako subjektibokeriari, inongo kapitalisten arazo morali, ezelako giza motari. Arazoak objektiboak, *makroekonomikoak* (Cencini, 2005), izanik, modu objektibo batez (bankugintzaren beste antolaketa baten bidez, batez ere) konpon daitezke.

## 2. Ohiko politikaz harago

Gatazka politiko eta sozial berriek ohiko ezkerren eskematxoekin bukatu dute. Ohiko alderdi politikoak paranoiko bihurtu dira, korporatibismoari atxikita, borroka berriak oraindik bideratu nahiz, kudeatze hori gatazkan bertan dauden mugimenduen barneko arazoa dela konturatu gabe.

Spinoza zaharrarekin batera esan beharra dago ezen desio berrien gauzatzea amaigabeko berregituratzea dela, hots, espazio-denbora berriak sorraraztea, etengabeko gatazka. Autobalorazioen bidez, elkartasun berrien bitartez, politika berria agertu da, erabateko parte-hartzea bultzatzen duena, zentralizaturik barik erabat desentralizaturik dagoena, lurraldetasun berrian demokrazia berria sortuz (Tobar-Arbulu, 1997). Azken bi hamarkadetan erresistentzia-espazio gisa singularitasun edo berezitasun kolektiboak agertu dira, eta kolektibo bakoitza bere etika motari atxiki zaio.

Eraikitze-prozesu horiek zientzia daukate askatasun-ekintzen metaketa gisa, zeren ez baitago inongo eraikitze ontologikorik modu immanentean elementu materialen —batera fisiko eta sozialen— metaketarik eta eskuratzetik gabe. Botere konstituziogile, eraikitzaile baten aurrean gaude: hierarkia eta zentralismo mota guztien kontra, horizontaltasuna eta desentralizazioa bultzatu dira. Subjektu berriak beren burua autoezagutuz eta autoantolatuz agertu dira, eta zentro gabeko sistemetan, sare hedatuetan antolatu dira. Horrela, askatasunezko espazio berriak, *lurraldetasun* berriak nonahi azaldu dira.

Lehengo paradigma politikoak —abangoardia baten inguruan gauzatzen zirenak— erabat hilik daude. Desio eta nahi berrien gauzatzeak —sareetan eraturiko botere konstituziogile berriek—, alegia, politika berriak lekuz kanpo utzi ditu lehengo kontzeptu eta eskema guztiak. Autobalorazio material eta kulturalen modu desberdinen bidez azaltzen den antolakuntza berria da egungo ezaugarri nabarmena. Antolatzeko modu berri hori da, hain zuzen ere, politika berria: askatasunezko, demokrazia parte-hartzailezko eta sormenezko espazioen etengabeko bereganatzea eta konkistatzea. Espazio-denbora berri horiek aniztasun gisa, pluralitasun moduan eraten dira, zeren singularitasun kolektiboen nahiak, desioak eta beharrak erabat ezberdinak baitira.

Horrelako lurraldetasun berri bat izan beharko du Euskal Herri berriak, zeina *konfederazioaren* bidez eraiki daitekeen. Egunotan, arlo politikoan herriak, kontzientziaduna den aldetik, ontologiaren eta historiaren arteko bitartekaritza demokraziaren inguruan gauza dezake. Baina ez orain arte ezagutu den moduan “borondate orokorrean” oinarritutako demokrazia formal gisa, baizik eta etengabeko,

bukatugabeko konstituzio edo eraikitze materialean finka daitekeen demokrazia berri moduan.

Zentzu horretan, eta Euskal Herriari dagokionez, litekeena da benetako gizarte-mugimendu independentista bultzatzea, alderdikrazian mugituko ez dena, alderdi eta kontrol-aparatu guztietatik kanpo, autonomia, bere buruaz kudeatzeko gai izanen dena, eta euskara hutsean arituko dena.

Gizarte-mugimendu berri horrek, maila eta arlo askotako askapen-mugimendu berriak, zentro gabekoa izan beharko du, edota beste era batera esanda, zentro askotakoa, *zentraleria* guztien aurkakoa, ezelako transzendentziarik gabe, inolako besterenganako bestelaketzerik gabe, inongo sasiabangoardiaren menpe (Tobar-Arbulu, 1997). Mugimendu independentista hori Euskal Herria eraikitzen laguntzeko tresna aproposa izan daiteke.

Giltza horretan datza, alegia, *multizentralismo funtzional* edo holako zerbait eraikitzean. Tokian tokiko eta lekuan lekuko beharrian eta premiei autonomoki, era independente batez, erantzun aproposak eman beharko lizkieke mugimenduak. Gazte, emakume, intsumitu, eta beste hainbeste gizarte-mugimenduren garaia dela agerrarazi beharra dago nonahi. Horrela, Euskal Herria sormen berritza ager daiteke, lurraldetasun berri modura.

Eraikitzeaz dagoen eta leninismo mota guztietatik askea, kontrol mota guztietatik libre den gizarte-mugimendu independentista indartsua euskaldunon esku dago, ez beste inon.

### **3. Autodeterminazio (AD) eskubideaz hitz bi**

Gros Espiell-ek (1998) ongi zehaztu du herriaren definizioa eta berari dagokion autodeterminazio-eskubidea. Estatuaren aldetik agertzen den kontzeptuen nahasketa interesatua argitu nahirik, hona hemen Gros Espiell-ek emandako zenbait definizio eta ohar, egungo nazioarteko zuzenbideari jarraituta.

*Herria* giza talde bat da ohiturek, ideiek, erabilerek, nahiek eta helburu komunek bateratzen dutena. Kulturak, hizkuntzak eta zenbaitetan erlijio lotura historikoek betetzen duten giza talde kontzientziaduna da herria. Etorkizun komunerako kontzientziak eta borondateak batzen duten giza kolektibitatea da herria. Egun ezin da egon inolako internazionalismorik herrien borondateetan, hots, jendearen desioetan oinarritzen ez denik.

*Nazioa* giza taldea ere da, baina nazio bat herri batzuek osa dezakete. Herriak dira, ez nazioak, nazioarteko zuzenbidearen subjektuak.

*Estatua* ez dator bat, nahitaez, herriaren edo nazioaren kontzeptuekin. Estatu batean herri batzuk eta nazio batzuk ere egon daitezke.

Herria eta nazioa errealitate historikoak, soziologikoak dira. Estatuak egitura eta eraketa juridikoa inplikatzeko du, hots, sistema juridiko konkretu bat.

AD eskubidearen tituludunak herriak dira, edozein herri. Lehen esan bezala, edozein herri dauka nazioarteko zuzenbide garaikidean onartutako autodeter-

minazio-eskubidea. Eskubide hori ez da ahitzen<sup>2</sup>. Beti bizirik egoten baita. Beste aldetik, herriaren erabaki askea suposatzen du AD eskubidearen praktikak<sup>3</sup>.

Estatuen lurraldetasunaren osotasunak (*'integridad'* delakoak) ADren praktika-rekin talka egiten du, baina ADren eskubidea da oroz gain babestu behar dena<sup>4</sup>.

#### 4. Abiapuntuak

Aipa ditzagun egun Euskal Herrian dauden abiapuntuak eta ikus dezagun zer-nolako prozesua hobets daitekeen independentzia politiko eta ekonomikoa lortzeko, subiranotasun ekonomikoa, politikoa eta monetarioa gauzatzearen.

Argi dagoenez, beste arlo batzuk ere —arlu linguistikoa, kulturala, sindikala, ekologikoa, irakaskuntza- eta hezkuntza-arloa, eta abar— ukitu beharko lirakeke prozesu horretan. Guri dagokigunez, eta arlu horiek guztiek daukaten garrantzia ukatu gabe, politikari eta ekonomiari lotuko gatzazkie lan txiki honetan.

Abiapuntua aipatzerakoan, batzuek Estatutua aipatzen dute. Oso gardena da estatutuak, pluralean, aipatu beharko direla. Baita Ipar Euskal Herriko egoera berezia ere.

(Badakigu, ongi jakin, nominalismo hutsean mugitzen dela hainbat jende gure herrian. Gure herriaren izena bera ere manipula daiteke, eta manipulatzeko, ez dakigu zer-nolako egoera iluntzeko. Lehengo "Euskadi" hura ere hiru probintzietara mugatu nahi du zenbaitek. Horregatik, Euskal Herria hobesten dugu, hau da, zazpi probintzietakoa den herriaren izena.)

Egungo abiapuntuaz hitz egiterakoan, hiru abiapuntu desberdin kontuan hartu behar dira: Euskal Autonomia Erkidegoa, non bete gabeko Gernikako Estatutua martxan dagoen; Nafarroa Garaia, bete gabeko Foru Hobekuntzarekin; eta Iparraldea, oraingoz eratu gabeko Departamenduarekin. Beraz, abiapuntua bera nahiko zehaztugabea da. Gure herriko hiru gune horietan, politika eta ekonomia mailan, martxan dauden prozesuak ez dira erabat zehazturiko legediak eta ongi araututako marko politikoak, azken hogeitau urte hauetan eztabaidan eta tirabiran egon diren prozesuak baizik. Prozesu horietan, harrigarria bada ere, Madrilek hainbat eskuduntza luzatu dio Nafarroa Garaiari Baskongadetatik aldentzeko asmoz. Gainera, egia da, estatutu desberdinen bidez lorturiko eskuduntzak nolabaiteko

---

2. «El derecho a la libre determinación tiene una virtualidad permanente. No se agota o se extingue en el ejercicio inicial del derecho. Subsiste siempre vivo».

3. «El ejercicio del derecho a la libre determinación, impone necesariamente el libre pronunciamiento del pueblo».

4. «El difícil e inestable equilibrio entre el derecho a la libre determinación de todo pueblo y la integridad territorial de los estados ha sido encarado en múltiples instrumentos emanados de las Naciones Unidas. (...) para que la integralidad territorial de los estados prevalezca (...) debe tratarse de un estado que garantice el derecho de libre determinación de los pueblos en su territorio, que han de poder expresar su voluntad con total libertad. Así el principio de integralidad territorial del estado deja de ser un criterio absoluto y pasa a ser un principio, importante y significativo, pero limitado y relativo, que existe si el estado respeta el derecho de la libre determinación de los pueblos que viven en su interior y que, en el ejercicio de este derecho, puedan elegir su "status" jurídico.

He sostenido, y sigo afirmando, que el derecho a la libre determinación es hoy un caso de "jus cogens", es decir de norma imperativa de Derecho Internacional».

“babesleku” modura har daitezkeela. Izan ere, bi estatu zentralisten arriskua beti dago gure gainean, Demoklesen ezpata balitz bezala. Horrek ez gaitu izutu behar. Alderantziz, lorturikoa kontuan edukiz, independentzia lortzeko falta denaz hausnartu behar da behin eta berriz, eta horren alde *demokratikoki* borrokatu, borroka gozagarrien eta antimilitaristen bidez.

## 5. Euskal Konfederazio berrirantz

Politika mailan autodeterminazio-eskubidea izan behar dugu helburu hurbila, eskubide hori martxan jartzeko noski. Argi dagoenez, *kanpo*-autodeterminaziorako, Euskal Herria, bere zazpi probintziekin, herri soil eta bakarra da eta soilik berari, ez bere edozein zatiri, dagokio nazioarteko mailan onarturik dagoen autodeterminazio-eskubidea. Hortaz, inoiz gure herria nazioarte mailan herri eta nazio gisa agertuko bada, herritar guztien desioen, nahien edo gurarien bidez azalduko da. *Barne*-determinazioa beste kontu bat da. Barnerako, gure herriak dauzkan berezitasun guztiak kontuan eduki behar dira. Haien artean eta lurraldetasunari dagokionez, egungo egoeran hiru gune oso berezietan azaltzen gara; guri gustatu ala ez, gauzak horrelakoxeak dira. Horrexegatik edo Euskal Herriko bateratasun bat lortzearren, *barne-konfederazioa* proposatu dugu hainbat artikulua eta lekutan.

Barne-konfederazioaren ikuspuntutik, egungo abiapuntu desberdinetatik hamaika proposamen egin daitezke hiru guneetan eta arlo ezberdinetan: kulturean, ekologian, sindikalgintzan, hizkuntzan eta irakaskuntzan, ekonomian...

Ekonomiaren ikuspuntutik, kasu, eurogunearen barruan mugitzen gara. Egoera ekonomiko latza —stagflazioa, kanpo-zorra, kapital espekulatzailaren ondorioak eta abar— gainditzeko egin behar diren azterketatik eta aldaketatik lekutan gaude.

Beraz, Euskal Herriaren barnerako, konfederazioa onartzen bada, hamaika eginkizunen aurrean gaude, gaurko egoera desberdinetatik abiatuta. Horretarako martxan dauden bi estatutu desberdin horiek “betetzea” nahitaezkoa bada ere —eta hementxe badago zer egin!—, kontua da betetze horretan ez geratzea, aurrerantz joatea, inolako beldurrik gabe gero eta subiranotasun politiko eta ekonomiko handiagoa eskatzea, harik eta kanpo-autodeterminazioa indarrean jarri arte.

Arazo bakarra, eta ez makala, nolabaiteko taktika mailan datza. Zer egin? Printzipio mailan aritzea? Independentzia bihar goizerako eskatzea? Ala, gauden egoera desberdinetatik independentziarantz joan daitezkeen zenbait ildo politiko eta ekonomiko asmatzea? Hortxe dago, gure ustez egungo kezka nagusia. Eta arazo horretaz behin eta berriz eztabaidatu beharrean gaude guztiok.

Maila estrategikoan nahikoa argi daude zenbait puntu. Kasurako, politika mailan European egun edozein estatuk daukan maila politiko berbera (askoz hobea, noski) lortzea. Zer dela-eta, bestela, espainiarrak edo frantsesak gu baino europarragoak izatea? Guk baino eskubide gehiago edukitzea? Bigarren mailako herritarrak izanen ote gara euskaldunak Europa berrian?

Beste gauza batzuk ez dira hain garbi. Zerbait esatearren, batzuek “sozialismoa” aipatzen dute, baina inolako zehaztasunik gabe. Okerrago, 1980ko hamarkadaren

bukaeran oraingoz hemengo batzuek *Comecon*-en integratzea proposatzen zuten, eta oraindik ere, gure egunetan, hainbat “iraultzaile” Kubara joaten bide dira fedearen bila.

Eta horrela doa gure historia. Euskaldun fededun herri honetan kristautasuna alboratu bide da eta marxismoan egon diren joerarik atzerakoiak, zapaltzaileenak, totalitarioenak aukeratu, onartu eta bultzatu dira. Ez dugu ezer ikasi. Ezkerrak porrot egin duela onartzen ez dueino, jai du. Kontua ez da atzoko “sozialismo” terminoari adjektibo ederrak atxikitzea —“identitarioa”, “parte-hartzailea”, “berria”, eta ez dakit zer gehiagorik—. Kontua da nola lor daitekeen hori guztia hala ekonomian (batez ere) nola politikan edo kulturaren zein irakaskuntzan.

Batzuk daude ez dakit zer-nolako gizaki “berriaren” zain, komunismo “berria” lortzearren. Izan ere, gure herrian estalintxoak eta maozale porrokatuak perretxiko gisa nonahi agertzen ziren bitartean (eta oraingoz hementxe daude, erdi ezkutaturik edo) Debord-ek 1967an bere *Ikuskizunaren Gizartea* delako liburuan “erabilera-balioaren joerazko jaitzieraz” idatzi zuen garbiro, hots, edozein erabilera-ekonomiaren mendetasunean egoteaz. Hortaz, kanbio-balioaren bidez, zehazki diruaren<sup>5</sup> bitartez, iristen da erabilera-baliora. Dirua da nagusia, bera da agintzen duena eta estatuen gainetik, inolako kontrolik gabe mugitzen dena. Arlo horretan dagoen (daukagun!) gabezia eta zulo teorikoa izugarria da, apartekoa.

Bien bitartean, bizi dugun kapitalismoan hamaika desoreka daude ekonomian, eta horretaz ez da eztabaidatzen. Horretaz ez da ezer esaten, ez bada halako edo bestelako diskurtso moralista astun eta gogaikarriak egiteko. Hortxe bukatzen da dena (daukagun gabeziak jabetzeko, ikus Schmitt-en bi lan garrantzitsu: 1984koa, eta 1991n Cencini-rekin batera egindakoa).

Errealitatean dagoen pluraltasuna *homogeneokeriara* murriztu nahi du kapitalak. Horri aitzitik, bizitzaren aldeko apustua egin behar dela erakutsi digute pentsalari zenbaitzuek, bizitzaren adierazpen konkretu guztietan: hala maila linguistikoa nola kulturean zein sozialean edo politikoa nahiz ekonomikoan. Apustu hori dela-eta, egun, intsumisioa arlo zibilean hedatu da, desobediencia zibila aldarrikatuz eta marxan jarriz hainbat arlotan. Izan ere, militantismo masokista mota guztietatik at, jendeak bere desioak eta nahiak bete nahi ditu, betetze horretan parte hartuz. Erremedio moralista aspergarriak proposatzen dituztenak hilik daude politikoki, aspalditik gainera. Beste aldetik, sufrikarioaren logika masokismo hutsa besterik ez da. Spinoza-ri jarraituz, borroka demokratikoan gozatu egin behar da.

Esan bezala, eragile sozial berriek bizitza bera errebindikatzen dute, bizitzaren kalitatea da goraipatzen dena, edozein ekintzatan parte hartuz eta aparatu kontrolatzaile eta estalinista, maoista edota leninista guztien, hots, zapaltzaile guztien gainetik.

Ekonomia mailan, eurotan aritzen gara. Zer suposatzen du Euskal Herrirako eurogunean mugitzeak? Zeintzuk dira Euskal Herriak eurogunean dituen arazo ekonomikoak? Zer-nolako aldaketak egin beharko lirakeke bankugintzan eta

---

5. Izan ere, edozein produkzio monetaren bidez “monetizatzen” da: produkzioa monetan integratzen da (Schmitt, 1984).

banku-kontabilitatean ezagutzen ditugun desoreka ekonomikoak gainditzeko? Zernolako aldaketa makroekonomikoak egin beharko lirateke Euskal Herrian burujabetza ekonomikoa eta subiranotasun monetarioa lortzeko? Nola uztar daitezke independentzia politikoa eta subiranotasun ekonomikoa? Nazioarteko Moneta Funtsez eta Munduko Bankuaz ba ote daukagu ezer esatekorik, diskurtso aspergarrietatik kanpo? Kanpo-zorrak arduratzen gaitu? Barkamenaren bidez, hots, karitatearen bitartez konponduko ote da kanpo-zorren arazoa? Ba ote daukagu neurriren bat kapital espekulatzailerako erraldoiaren kontra?

Galdera asko eta erantzun gutxi. Ekonomiaren arloan estatistika batzuk agertuko zaizkigu, besterik ez. Baina Euskal Herriaren argazki ekonomiko hutsak diren estatistikek ez dute deus balio geure etorkizun ekonomikoa definitzeko, zeren onean soilik abiapuntua bera nolakoa den argitzen baitute. Neurri makroekonomikoak behar dira makroekonomia kudeatzeko (orain dela zenbait urte argitaraturiko liburuan —*Euskal Herria bere gain. Euskal Herriko subiranotasun monetario eta ekonomikoa aztergai* izenekoan<sup>6</sup>—, gure herriaren arazo ekonomikoez eta monetarioez aritu gara, baita arazo politikoez ere. Irakurleak hortxe dauka subiranotasun-prozesuan agertzen diren oztopoak —batez ere makroekonomian oso funtsekoak diren oztopo teorikoak— gainditu ahal izateko zenbait proposamen).

Konfederazioaren kontzeptua argi edukiz gero, hots, estrategia garbi egonez gero, politika mailan taktika bereziak erabil daitezke Euskal Herriaren “bateratasuna” lortzeko. Izan ere, ezein batasunek ezin suntsi ditzake tokian tokiko berezitasunak: arabarrak zein Enkarterrikook eroso, eta pozik, egon beharko ginatke geure nazioa eraikitzeke proiektuan, zuberotarrak edo Erriberakoak egon daitezkeen moduan.

Mota guztietako *zentralkeriak* parte-hartzea hiltzera darama, eta parte-hartzea da gaur egun nonahi eskatzen dena. Kontrola nahi dutenei, *aparateroei* zein estalintxoei ulertezina bazaie ere, *parte-hartzea konfederazioaren bidez gauza daiteke*. Izan ere, zenbat eta deszentralizazio handiagoa eta zabalagoa izan, orduan eta indartsuagoa eta sendoagoa izan daiteke gure nazioaren eraikitzea barnerako, kanporako herri soil eta bakartzat agertuko garen bitartean. Ezar dezagun, beraz, konfederazioa praktikan maila eta arlo guztietan, norberaren izaera —gizabanakoarena zein taldearena nahiz eskualdearena edo herrialdearena— arriskuan jarri gabe.

## 6. Informazio-gizartean bizi gara

Lehengo eskema zaharrak errepikatzeak hondamendira besterik ez gaitu eramaten. Beste diskurtso berri bat asmatu beharra dago. Alta, diskurtso berria ez da aski. Berarekin batera praktika politiko berri bat beharrezkoa da. Horretarako, aspaldiko ohiturak eta praktika zaharrak alboratu behar dira.

*Homo sapiens* delakoa *homo digitalis* bihurtuz doan aro berri honetan, malenkonia politiko mota guztiak soberan daude. XXI. mendean informatika, diseinugintza, iragarkigintza, telematika, inteligentzia artifiziala eta beste zenbait

---

6. Schmitt-en lanetan oinarrituz, eta moneta-teoria berri bat proposatuz (Tobar-Arbulu, 1999), Euskal Herriaren arazo ekonomikoak eta monetarioak ikertu ditugu lan horretan.



“komunikazio-diziplina” direla medio, hitzak eta komunikazioak berak aspaldian zeukaten zentzua galdu dute. Hitza eta komunikazioa, gure kontrol-gizarte honetan, usteldurik daude, zeren beroriek diruak erabat zeharkatu baititu. Gainera, estatuez baino harago dirua da nagusi, bera da “komunikatzen” duena, eta bera da kontrol mota guztietatik askea dena.

Zer-nolako eraginak dauzka informatika-iraultzak gure herrian, ziberespazioa etengabe handituz doalarik? *Homo sapiens* delakoaren ezaugarri nagusia lurrarekiko haren lotura izan zen. *Homo digitalis* delakoak ziberespazioan dauden hamai-ka telepolis berriein dauzkan erlazioetan neurtzen du bere eginkizuna eta telepolis horiekin batera bere etorkizuna gauzatuz doa. Telepolisa deslurraldetutako hiria da, muga geografikoen eta politikoen gainetik erutzen dena. Lehengo giza harremanak (familiakoak, auzokoak, herrikoak...) auzotasunean eta gizakien hurbiltasunean oinarritzen zirenak aldatuz doan heinean, giza harreman berriak sortu dira, urrunetik gauzatzen direnak. Egun Euskal Herriko edozein txokotatik munduko edozein lekutako jendearekin konekta daiteke. Munduan zehar gaur 360 milioi pertsonak erabiltzen dugu Internet, ingelesez % 51,3k (euskara etxerako, ingelesa —*lingua franka* gisa— kanporako. Hona hemen biharko Euskal Herriak eskatzen diguna).

Euskal Herriak dauzkan potentzialtasun mota guztiak arlo desberdinetan (politikan, ekonomian, kulturen eta hainbat maila sozialetan) gauzatuz joan beharko du, inolako kanpoko esku-sartzerik gabe. Hauxe da, hain zuzen ere, egungo “bakearen prezioa”: inor ez dadila sar, inoren izenean, Euskal Herriaren etorkizuna erabakitzean. Abangoardismoaren erabateko porrota inoiz baino argiago deneko egoera honetan, gure artean egon litekeen elkartasunari zenbait metodo zaharkituk aparteko kaltea egiten diote. Horiek soberan daude. Beste bide berriak asmatu behar dira. Horretarako, hortxe daude solidarioek, intsumituek, eta desobedientzia zibilekoek gauzatzen dituzten ekintza ederrak. Ikasiko ahal dugu!

## **7. Nafar estaturantz. Berreskuratu ala eraiki? Berreskuratu eta eraiki!**

Iruñetik datorkigun mezuaren arabera, badirudi nafar estatua berreskuratu beharko dugula. Zenbait nafar ikertzailek lan erraldoia eta ederra egin dute, dudarik gabe. Gainera, nahiz eta aurrekoek, Kanpionek eta, aspaldian ildo bera jorratu, inoiz baino argiago geratu da euskaldunok geure historian estatu bat izan dugula. Hortaz, badaukagu nolabaiteko pedigree historikoa.

Egia da azken ehun urteko abertzaletasuna Aranaren aldarrikapenetatik etorri dela hein handi batez. Aranismoak ez zuen aintzat hartu euskaldunok nafar estatua izan dugula mendeetan zehar. Erreferentzia juridiko-politiko-historiko horrek ez du ukan behar zuen lekua gure politikagintzan. Alta, zenbait historialari nafarrek erakutsi digutena oso garrantzitsua izanda ere, ez da nahikoa. Argi daukagu historiografia hori beharrezkoa dela, erabat. Baina nahikoa izateko, egungo egoerari begiratu behar zaio, erabat aldatuta dagoen informatika-gizarteari, oso bestelako baldintza ekonomikoari eta sozialei egin behar diegu so. Mundu berri honi erantzunak asmatzen saiatu behar gara.

Historiografiak gure historia ezagutzen lagundu gaitu. Baina historiak ez gaitu askatuko. Historiak itsutu egin gaitzake: historiak, gorabehera askorekin, gauden egoera larrira ekarri gaitu. Historian zehar ezaguturiko baldintza ezberdinek ez dute deus balio geure orainaldiaren eta etorkizunaren jabe izateko. Jendearengandik at ez dago ezer. Euskaldunok, Euskal Herriko herritarrok dauzkagu hitza eta erabakia, ez beste inork.

Nafarroa Garaian egungo esparru politikoa, ekonomikoa, soziala eta kulturala irabazi behar ditugu abertzaleok, Iparraldean edota Baskongadetan egin behar dugun moduan. Hori da, hain zuzen ere, jende askori maiz ahazten bide zaion kontua. Baskongadetako kontuei gehiegi begiratu gabe, jende askotxok hobe luke Nafarroa Garaiko oraingo kontuei ere begiratzea, Euskal Herriaren osotasunaren perspektiba, noski, galdu barik.

Ez da kontua esatea Euskal Herria eta Nafarroa txanpon beraren bi aldeak direla, Euskal Herria kontzeptu kulturala eta Nafarroa adierazpen politikoa. Hori, onenean ere, nominalismo hutsa izan daiteke. Izen baten azpian ez dago ezer. Egun berdin dio proiektu politikoari nafar estatua, euskal estatua edo Euskal Herriko estatua deitzeak. Kontua da ea nola iristen den euskal estatu horretara gaurko baldintzetatik. Horixe da apustua eta horixe da erabaki behar duguna.

Egun inoiz baino gardenago daukaguna autodeterminazio-eskubidearen aldarrikapena da. Errepikakorrak izan gintezke, baino behin eta berriz esan behar da ezen eskubide hori edozein herriri, herri osoari dagokion eskubidea dela. Hortaz, Euskal Herri osoa da autodeterminazio-eskubidedun bakarra. Ez Araba, ez Zuberoa, ez dira autodeterminatzeko subjektuak.

Aipatu bezala, Nafarroatik datorkigun historiografia berria Kanpionen ildotik abiatu da. Kanpionek ere, Euskal Herriaren egituraketari buruz, Nafarroaren inguruan, Baskoniako *Konfederazioa* aipatu zuen. Baskoniako lurraldeen konfederazioan Euskal Herriaren etorkizuna koka daiteke; lurralde guztien konfederazio hori lortzeko, egungo baldintza konkretuetatik hasi behar dugu, ez orain dela mila edo bostehun urtekoetatik. Egia da Nafarroa izan zela euskaldunen erresuma historikoa. Baina Euskal Herriak aro historiko anitz bizi izan ditu historian zehar. Egungo gizartea da erabakitzailea, ez orain dela mila urtekoa. Euskal Herriko gaurko indar politikoez, sindikalez, agente sozialez eta gizarte-mugimenduez dute hitza. Egungo nafar erkidegoa, Baskongadak eta Iparraldea bateratu behar dira, hiru esparru horiek eraman ditzaketen erritmo desberdinak kontuan edukiz.

Euskal Herriak ez du ukan inongo iraganaldi paradisiakorik. Eta etorkizun paradisiakorik ere ez du ukanen. Aroan aroko eta aldian aldiko jendeak erabakiko du zer nahi duen eta nola lortu nahi duen, desioen, nahien, beharrianen eta baldintzen bidez. Horixe da, eta ez besterik, AD gauzatzea. AD ez da behin betiko erabiltzen, beti bizirik eta irekita den eskubidea baizik (Gros Espiell, 1998).

Prozesuan gaude, interdependentzia batean Euskal Herri independente bat martxan eta indarrean jartzeko etengabeko prozesuan. Berreskuratze historiko eta, era berean, gizarte informatiko berri honetan, eraikitze berri honetan hamaika

zeregin dago eta, zoritxarrez, horretarako eztabaida eta proposamen gutxi. Proposamenak, edozein eskutatik datozela, eztabaidatzekoak dira.

Euskal Herriaren etorkizuna Suitza txiki baten antzekoa izan zitekeela idatzi zuen orain dela zenbait urte Manex Goyhenetche historialariak. Berak zioenez, Europako nazioen mapatik kendu zuten nazio bat. Konkista horren ondoren, herri hori zapalduta egon da eta oraindik horrela, hots, menperatuta segitzen du. Hortaz, Nafarroak badu legitimitate historikoa eta hori ezin zaio kendu. Baina maila praktikoan Baskoniako lurraldeen konfederazioa ikusten du Manexek Euskal Herriaren etorkizuna. Puntu horretan, ados gaude historialari baxenabartarrarekin.

## **8. Ildo konkretu baten zenbait zehaztasun**

Gauza interesgarri batzuk azaldu dira gure herrian azken urte hauetan. Alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoan azken hauteskundeetan aparteko zaplaztekoa jasan du espainiar eraso politiko-mediatiko ikaragarriak. Beste aldetik, intsumisio zibila martxan dago, indarkeriarik gabeko ekintzen bidez gauzatzen den intsumisioa, biolentziarik gabeko estrategian kokatzen dena, militarismo mota guztiak alboratzen dituena, hain zuzen ere. Eta, azkenik, politika mailan, ezker abertzalean bertan ere mugimendu interesgarri eta adierazgarri batzuk agertu dira.

Euskal Herri osorako demokrazia lortzearen, bide demokratiko soilak —tarteetan intsumisio zibila hainbat arlotan— proposatzen dituzten indarrak beren eginkizunak zehazten eta argitzen ari dira. Ez da txantxetakoa egoera berri hau.

Gure aldetik, eta tesi moduan, honelako ideia batzuk proposatuko genituzke epe laburrerako:

- (i) Autodeterminaziorantz abiatzea: barne-autodeterminaziorantz egungo markoetatik, eta kanpo-autodeterminaziorantz nazioarteko mailan, hainbat ekitaldi demokratiko jorratuz.
- (ii) Sindikalgintzan LABek eta ELAk 1995ean hasitako ildotik berriz abiatzea, langileriaren, hots, soldatapekoen garrantzia apartekoa da-eta.
- (ii) Ekonomia mailan, subiranotasun monetarioa eta ekonomikoa lortzearen, aspaldiko diskurtso sozialdemokrata zaharkitua alboratuz, eta zer esanik ez marxismo-leninismotik datozen zaharkeria oro saihestuz, bankugintzak daukan garrantzia onartzea, hortaz jabetzea, eta behar diren aldaketak proposatzen hastea.

## **9. Zenbait proposamen ez hain konkretu**

Batzuen iritziz, sozialismoak praktikan omen du okerkuntza, ez teorian. Horrelakoxea bide da mezua. Besteen aburuz, berriz, neoliberalismoan ondo kokatu behar gara.

Kontua ez da teoria on bat —marxismo-leninismoa— gaizki aplikatu dela, teoria oso kaskarra indarrean erabat gaizki jarri zela baizik. Beste aldetik, neoliberalismoari aurre egiteko, irakurriagoek Tobin-en zerga aipatzen dute. Dirudienez, hemengo progresiak oraintsu jakin du Tobin badagoela, Tobin-ek bere zerga-kontua

1970eko hamarkadan plazaratu bazuen ere (dena den, adabakia besterik ez da Tobin-en “irtenbide” hori).

Gure aldetik, aspalditik goratu dugu 1995ean ELAk eta LABek lorturiko akordioa, menia-denboran ezagutu genuen egoera bereziaren hasiera eta abiapuntu nagusia izan zena, eta berriz gaur egun ere izan beharko litzatekeena. Sindikatuek, eta euskal langileria oro har, defentsiban daude, nonahi langileak dauden antzera. Ulertzekoa da. Aspaldiko topikoak eta mitoak gero eta nabarmenagoak ageri dira sozialismo “errealaren” porrotarekin. Bien bitartean, kapitalismoak bere etengabeko martxan sakoneko aldaketak ezagutu ditu. Ondorioak nabariak eta ezagunak dira: krisi ekonomikoak, espekulazioa, triskantza ekologikoa, eta abar. Horri guztiari lantxo honetan erantzun konkretua ematea gehiegi litzateke.

Aipa dezagun, dena den, oso garrantzitsua den puntu bat. Enpresarien ahaleginak eta bankarien mirariak aipatzen dira etengabe komunikabideetan, informazio-aurkezleek zabor intelektuala agertzen duten bitartean. Non daude langileak, non gaude soldatapekoak?

Badirudi langileak defentsiban daudela, soldatapekook ahalkeak garela. Alta, argi eduki behar genuke Adam Smith-engandik Keynes-engana datorkigun mezua, hots, lan-indarra —zentzu zabalean— ondasun guztien iturria dela.

Langileriak erreminta kontzeptual berriak behar ditu kapitalismoak ezagutu dituen aldaketak ulertzeko eta erantzun egokia eman ahal izateko. Globalizazio honetan, monetaren edo diruaren eginkizuna eta bankugintza modernoaren jarduera kontuan hartu behar dira, zeren arazoa ez baita soilik produkzioa aztertzea —eta izatez, bada— baizik eta nola monetizatzen den produkzio hori. Monetaren eginkizuna ikertuz, ondorioz ikusiko genuke bankugintzan zenbait aldaketa beharrezkoak direla pairatzen ditugun zenbait patologia gainditzeko.

Kontua ez da soilik ekonomia krisian dagoela. Hori argi dago, *malgré* diskurtso ofizial guztiak. Okerragoa dena ondokoa da, hots, zientzia ekonomikoa bera ere krisian dagoela. Hori onartzen ez dugun artean, zorabioan biziko gara, hitzen zorabioan. Zorabio horretatik irten nahirik, lehen aipaturiko autorearengan —Bernard Schmitt-engan eta haren inguruan eratutako eskolakoengan— badauka irakurleak zer pentsatu eta zer hausnartu.

## 10. Arazo ekonomiko batzuk

Esan bezala, ez da hau lekua ekonomiaz sakonki aritzeko, baina “nominalismo ekonomikoarekin” bukatzeko, zerbait aipatu beharrean gaude. Izan ere, arazo ekonomiko eta monetarioak baitira eztabaidatzeko mahai gainean ezarri behar direnak, bestela autonomismoaz, estatutuaz, subiranotasunaz eta independentziaz aritzea nominalismo hutsa izan baitaiteke, eta izatez bada. Hori dela-eta, zertxobait esanen dugu nazioarteko kapital espekulatzailiaz, kanpo-zorraz, Europar Batasunaz eta stagflazioaz (langabezia eta inflazioaz). Horretarako, teoria *makroekonomiko* berria ukitu beharrean gaude.

Fenomeno monetarioek dimentsio makroekonomiko bat daukate ez soilik nazio-mailan (stagflazioa konpontzearen) baizik eta mundu osorako. Hori dela-eta,

hainbat arazo azaltzen dira: truke-tasen eta merkatu finantzarioen ezegonkortasuna kapital espekulatzailerak nagusi delarik, kanpo-zorraren zerbitzuen zama eta zenbait gune monetario —Europar Batasuna, kasu— eraikitzeko zailtasunak.

Euskal Herria bi estatu desberdinek sartu dute Europar Batasunean. Inongo eztabaidarik gabe, beste inposizio historiko bat jasan behar izan du gure herriak. Egun Europar Batasunean sartzeko, zenbait baldintza makroekonomiko bete behar ziren: Amsterdamgo Itunean azaltzen zirenak (1999ko maiatzaren 1ean indarrean jarriak). Euskal Herriak ez du hortik igaro behar, jadanik bestek lehengo Maastrichteko baldintzapean jarri baikintuzten. Orain eurogunean murgiltzen gara.

Europar integrazio hori aspalditik izan da kritikatu. Keynes-ek 1944an proposaturiko *International Clearing Union* delakoaren antzera, ildo beretik, eta berorren plana hobetuz, Schmitt-ek (1988) Europar Batasun berri hori antolatu nahi zuen. Baina ortodoxiak Maastrichteko Itunaren bidez lortu zuen euroa martxan jartzea, langabezia nonahi barreiatuz. Horixe da, hain zuzen ere, egun Europar Batasunean desafiorik handienetako bat, alegia, langabeziarekin bukatzea.

### 10.1. Nazioarteko kapital espekulatzailerak

Gaur egun herrialdeen arteko transakzioak dolarretan (edo beste giltza-moneta batean) gauzatzen dira. Egun truke-tasak moneta nazional desberdinen prezio erlatiboaren bidez definitzen dira (modu oker batez!), beraien eskaintzen eta eskarien egokitzapenen bitartez.

Truke-tasen fluktuazioak adierazteko, ekonomi zientzia monetarioaren teoria berriak argi azaltzen du ezen truke-tasa horiek ez daudela desordena monetario nazionalen, interes-tasen edo merkataritza-anomalien eta anomalia finantzarioen menpe. Izan ere, kanpo-zorraren zerbitzuaren kasutik at —berau oso berezia baita—, nazioarteko transakzioek herrialdeen arteko transakzioak inplikatzeko dituzte, kanpo-trukeko merkaturaren oreka bermatzeko baldintza beharrezkoa eta nahikoa dena.

Bere merkataritza-inportazio netoak ordaintzearen, giltza-moneta duen herrialdeak bere dirua *bikoiztasun*-prozesu batera behartzen du, zeinak nazioarteko kapital *espekulatio* baten sormenera baitarama. Rueff ekonomialaria izan zen euro-moneten (hobe xeno-moneten) analisia egin zuen lehen ekonomialaria eta xeno-monetak truke-tasako fluktuazio erratikoak adierazteko giltza dira.

Labur dezagun analisia. Demagun erreserba-monetako **A** herrialdeak bere merkataritza-inportazio netoak ordaintzeak **G** herrialde esportatzaileei **A**-ko banku-gordailuen gaineko eskaeren transferra inplikatzeko diela. Partida bikoitzeko kontabilitateak erakusten duenez, **A**-n eraturiko errentaren inongo unitaterik ez zaio **G**-ri transferitzen. **G**-ko banku-sistemaren aktibo aldean sarturiko kredituak **A**-ko banku-gordailuen parte baten jabea **G** dela esan nahi du. Gordailuak berak, hala ere, oraindik erabat presente daude **A**-ren banku-sisteman. Hortaz, **G**-k irabazten duena **A**-n oraingoz eskuragarri dirauen gordailu bat da. Kontua da **G**-ko banku-sisteman sarturiko **A**-ko diru-kopurua **A**-n beraren gordailu korrespondentearekiko autonomo bilakatzen dela.

Rueff-ek azpimarratu duenez, **A** dirua *bikoiztasun* batera beharturik dago, zeren aldi berean **A**-n eta atzerrian eskuragarria baita. **A**-n banku-gordailuek **A**-ren output korrontea definitzen duten bitartean, atzerrian inbertitutako bikoizteak ez dauka inongo objektu, inolako eduki errealik. Bikoiztasuna gertatzea ahalbidetuz eta bikoiztea hasierako banku-gordailuekiko autonomo bilakatzea ahalbidetuz, nazioarteko ordainketen gaurko egiturak erabat *espekulatiboa* den kapital baten eraketa sortzen du. Produkzio errealekin inolako loturarik gabe, kapital horrek merkatu espekulatibo bat elikatzen du, non moneta nazionalak truke-objektu bihurtzen baitira eta beraien truke-tasak zuzenki eskaintzaren eta eskariaren menpe baitaude. Ondasun errealekin gertatzen den moduan, xeno-monetak erosiak eta salduak dira beren konturako; alta, ondasun errealekiko gertatzen denaren aurka, moneten prezioa ez dago lotuta beraien produkzio-kostuei. Gainera, bikoizte hutsak izanik, xeno-monetek ez daukate inongo produktu errealik barnean. Output nazionalarekiko erlazio objektibo horren gabezia izan arren, xeno-monetak truke-objektu autonomoak dira truke-merkatu atzerritarrean. Hortaz, merkatu horren izaera espekulatiboa egiten duena ez da bertan gauzatzen den transakzio-mota —transakzio batzuk ez dira batere espekulatiboak—, baizik eta bikoiztasun-prozesu patologikoari dagokion merkatu horren existentzia bera, bikoiztasun horrek monetak ordainketa-medioetatik ordainketa-objektuetara aldatzen dituelarik. Espekulazioa kapital espekulatiboaren efektua da eta ez berorren kausa, kapital espekulatiboa moneta-bikoiztasunaren emaitza zuzena izanik. Monetak truke-objektuetan aldatuak diren bezain laster, haien truke-tasak beraien erosketen eta salmenten arabera aldatzen dira, eta espekulazioa aldaketa horietatik kapital-irabaziak lortu nahiz sortzen da. Beraz, ez da harrigarria espekulazio mota hori truke-tasen fluktuazioen kausa nagusia bihurtzea, eta fluktuazio horiek, beren aldetik, espekulaziorako pizgarririk garrantzitsuena bilakatzea.

Ezin ote da gurpil zoro horretatik irten? Schmitt-en teoria monetarioak ebazpen baten oinarriak hornitzen ditu. Bretton Woods-en 1944an Keynes-ek aurreikusi zuen moduan, Schmitt-ek proposatzen duen aldaketak egungo truke-tasa erlatiboaren sistema truke-tasa absolutuetan transformatzera jotzen du. Moneta batzuk besteen kontra trukatuak direneko sistema batetik, moneta bakoitza beraren aurka trukatu deneko sistema batera igaro behar da. Horrela, **A** dirua **G** diruaren kontra trukatu den bakoitzean, **G** moneta berehala atzera trukutzen da **A** monetaren aurka. Printzipio hori da banku-monetaren kontabilitatearen izaerarekin eta diru horren erabilera zirkularrarekin egokia den bakarra. Herrialdeen arteko merkataritza-transakzioei eta transakzio finantzarioei aplikatzen bazaie, bikoiztasuna alboratzen du eta truke-tasen egonkortasuna bermatu. Hortaz, desordenatik ordenarako prozesuak egitura baten sortzea behar du, eta nazioarteko transakzioek truke absolutuen bidez parte-hartzea ahalbidetu. Hori egin daiteke Keynes-en *International Clearing Union* delakoari jarraituz, alegia, “Munduko Banku” bat eratuz, nazioarteko moneta berri bat jaulkiz eta biak bitartekari monetario gisa eta konpentsazio-ganbara modura arituz.

Kasurako, ikus dezagun **A** herrialdeak egin behar duen merkataritza-inportazio neto baten ordainketa. Elkarrekiko trukearen printzipioa oinarritzkoa da diruaren erabilera zirkularra ziurtatzeko. Printzipio hori Munduko Banku berriari aplikatu behar zaio, zeinak, konpentsazio-arauen arabera, **A** herrialdearen ordainketa gauzatu bailezake soilik baldin eta **A** herrialdeari **G** gainerako mundutik ordainketa

baliokidea egingo balitzaio. Gure etsenpluan, Munduko Banku berriak **A** herrialdearen merkataritza-erosketa netoaren ordainketa gauzatu lezake soilik **A**-k **G**-ri tituluen kopuru baliokidea salduko balio. Munduko Banku berriak emitituriko mundu-moneta berria erabiliko da aldi berean **G**-tik **A**-ra ondasun eta zerbitzu errealak eramateko, eta **A**-tik **G**-ra eskabide finantzarioak.

Merkataritza-aktiboen eta aktibo finantzarioen elkarrekiko trukea mundu-moneta berri baten erabilera zirkularraren bidez gauzatzen da, zeina, beste edozein banku-moneta bezala, bere emisio-puntura bat-batean atzera itzuliko baita. Mundu-moneta berria zirkulu itxi batean erabiliz, sistema berriak **A**-ren monetaren eta **G**-ren monetaren arteko truke-tasa egonkorra bermatuko du. Izan ere, moneta nazional bakoitza bere buruaren kontra trukatu da mundu-moneta berriaren bitartekaritzaren bidez.

Mundu-moneta berria trukatu izan eta gero, eta **A**-ko merkataritza-inportazioak ordaintzeko gastatu izan eta gero, **A** monetak bere hasierako era berrartuko du, truke-transakzioen elkarrekikotasun perfektua kontuan izanez. Ondorio gisa, **G**-k esportaturiko ondasun eta zerbitzu errealen eta **A**-k esportatutako tituluen artean ordezkatzeko bat gauzatu da. Truke absolutuen bidez, **G**-k salduriko ondasun eta zerbitzuak **A** diruaren eduki bihurtuko dira, **A**-k esportaturiko tituluek **G** diruaren forma hartuko duten bitartean.

Nazioarteko transakzioen sistema berriak horrela transakzio bakoitzean ordainketa erreal bermatuko du moneta baten —mundu-moneta berriaren— erabilera zirkularraren bidez, eta mundu-moneta berri hori inoiz ez da azken ondasunean aldatua izanen. Egungo truke erlatiboen tasako sistema ezegonkorra truke absolutuen tasako sistema batek ordezkatu eta gero, moneta nazionalen bikoiztasuna ere alboratuko da eta egonkortasun monetarioa bermatuko.

## 10.2. Kanpo-zorra betiko zorra

Erreserba-monetadunak ez diren herrialdeek kanpo-transakzioak ordaintzean agertzen den kanpo-zorraren zama ere ikertu du Schmitt ekonomialariak. Ekonomialari frantziarraren ondorioz garrantzitsuena hauxe da, alegia, herrialde zordunduek, beren kanpo-zorra dela-eta, zorraren interes netoaren kopurua *birritan* ordaintzen dutela.

Hasteko, esan dezagun ezen interes-tasaren zama ezin izanen zatekeela inoiz bikoiztu Keynes-ek nahi zuen plana —*Plan for the Establishment of an International Clearing Union* delakoa— martxan jarri izan balitz, non moneta nazionalak homogeneo bihurtuak izanen baitzirakeen.

Banku-diruaren partida bikoitzeko izaerari dagokion nazioarteko ordainketen sistema egoki bat ez edukitzeak gutxi garatutako herrialdeak behartzen ditu haien kanpo-ordainketen medioak, hots erreserba-monetak (gehienetan dolarrak), erostera. Ordainketa-medio soilaren erosketak kostu positibo neto bat dauka soilik ordainketak unilakalak direnean: interes-ordainketen kasua horrelakoa da. Definizioz, interes-ordainketak zama bikoitzean jaulkitako transferrak dira, zeren herrialde zordunduek ordainketa erreal bati eta ordainketa monetario bati, biei, aurre egin behar baitiete. Izan ere, lehendabizi beren output nazionalaren parte



bat herrialde hartzekodunei transferitzen diete. *Gainera*, beren erreserben parte baliokide bat eman behar dute. Ordainketa “erreala” erabat legitimoa den bitartean —hartzekodunek beren hasierako inbertsioak sorturiko errentaren banaketan parte hartzeko eskubidea edukiz—, bigarren ordainketa kaltegarria da oso.

Gaur egungo nazioarteko ordainketen sisteman gaizki dagoena ez da herrialde zordunduek beren hartzekodunei merkataritza-esportazio neto baten bidez ordaintzen dietelako gertaera, baizik eta errenta nazionalaren kopuru positibo baten transfer unilaterialak sortzen duen kostua ere beraiek estali behar izatea. Ordainketa giltza-moneta atzerritar baten bidez gauzatzera beharturik daude. Hortaz, gutxi garatutako herriek beren errenta nazionallean galera jasotzen dute. Galera hori alboratzeko bi era daukate: a) beren erreserba ofizialen gutxitze baliokidea jasatea; edo b) kanpo-zorraren gehikuntza bat onartzea. Oro har,  $x$  interes-unitateko ordainketak haiei  $2x$  unitate kostatzen zaie: bi bider haien hartzekodunei zor zaien kopurua. Izan ere, bigarren ordainketa ez da hartzekodunen onurarako, beraien herrien onurarako baizik, herriak osotasun gisa, *multzo* moduan, *nazio monetario* legez kontsideratuta. Horrek esan nahi du ezen herrialdeen arteko interes-ordainketa soilik maila makroekonomikoan uler daitekeela.

Ikuspuntu mikroekonomikotik, interesen ordainketak zordunduengandik hartzekodunenganako errenta-transferra definitzen du. Horixe da, hain zuzen ere, herrialde konkretu baten barruan interesa ordaindua denean gertatzen dena. Gauzak erabat aldatzen dira ordainketak mugen gainetik egiten direnean. Zordunduen eta hartzekodunen arteko errenta-transferra ezin da gauzatu barneko monetak konbertsio monetario baten bidez moneta atzerritarretan aldatzen ez badira. Are sinpleagoa, herrialde zordunduak —zeinaren egoiliarrek hartzekodun atzerritarrei interesak ordaindu behar baitizkiete— kanpo-trukeko kopuru baliokidea ematen du, merkataritza-esportazio netotik datorren kopurua. Nahiz eta egia izan ezen hasierako inbertsio atzerritarrek **A** herri zordunduan sorturiko errentaren parte bat **G** herrialde hartzekodunari zor zaiola, oker dago esatea ezen **A**-k **G**-ri ordaindu behar diola ez soilik bere output nazionalaren parte bat baizik eta moneta atzerritarreko kopuru baliokidea ere. Bere esportazioetatik deribatutako kanpo-irabazien parte bat **G**-ri transferitua izanik, **A**-k uko egin beharko lioke bigarren ordainketari. Hori gertatzen ez baldin bada, zergatik da, alegia, gaur egungo nazioarteko ordainketen sistemak ez duelako permititzen **A**-ko egoiliar zordunduek egindako ordainketa beren herrialdeak egindako ordainketan kostu libreko konbertsioa gauzatea.

Gauzak maila makroekonomikoan daude gaizki. Egoiliar zordunduek behin ordaintzen dute, behar den moduan, eta haien herrialdea beharturik dago bigarren biderrez ordaintzera, zeren interes-transfer unilaterialak **A**-ko ekonomian “putzu monetarioa” sortzen baitu. **G**-ren onurarako **A**-ren transfer unilaterialaren ondorioa ondokoa da: **A**-ren merkataritza-esportazioen parte baliokidea **G**-ri libreki ematea. Hortaz, **A**-ko egoiliar zordunduek egindako interes-ordainketak **A**-ko merkataritza-esportazioen ez-ordainketa bat dakar, zeina **A**-ko erreserba ofizialetan gutxitze baliokide batek orekatu behar baitu. Kanpo-zorraren zerbitzuaren bigarren zama hori berehala gehitzen zaio interes-ordainketa errealari —**G**-ri **A**-ren output nazionalaren partearen transfer librea— eta **A** herrialdeak eta bere egoiliarrek jasaten duten zama osoa bikoiztu egiten da. Berriz ere, ordainketa errealak esportazioek



berez suposatzen duten **A**-ren erreserba ofizialen gehitzea galarazten duen bitartean, interes-ordainketa monetarioak esportazioen bigarren neurria suposatzen du, zeina ez baitu **G**-k ordaintzen, eta defizit monetarioa sortzen du. Defizit hori, orduan, **A**-ren erreserba ofizialen gutxitzeak estaltzen du.

Egoiliar zordunduen ordainketa kanpo-zorraren zerbitzuak behar duen ordainketa bakarra izanen balitz, **A** herrialdeak bitartekari soil gisa jardungo luke. **A** herrialdeak bere egoiliarrek gastaturiko barneko errenta eskuratuko luke eta hartzekodun atzerritarrei errenta baliokidea transferituko. Kasu horretan, barruko diruaren konbertsioak moneta atzerritarrean zero kostuan parte hartuko luke, eta interes-ordainketaren karga bakarra **G** herrialdeko hartzekodunei ordaintzeko behar diren merkataritza-esportazioak izanen lirateke.

Herrialde bakoitzean gauzaturiko erreformarik ezean, interes-ordainketak **A**-rako zama bakarra suposatuko luke soilik baldin eta nazioarteko konpentsazio-sistema batek herrialdeei ahalbidetuko balie beren barneko moneten konbertsio libretik profitatzea. Beste hitzez esanda, interes-ordainketa normala izanen litzateke baldin eta bera herrialdeen arteko elkarrekiko transakzioen sistema batean integraturik balego. 1944an jadanik Keynes-ek gogoratu zuenez, horrelako sistemak ez ditu transakzioak murriztuko. Alderantziz, bere helburua egitura monetarioa hornitzea da, nazioarteko ordainketak egokiro gauzatuak izan daitezen ahalbidetuz, inolako istilu monetariorik sortu gabe, hau da, truke-tasen fluktuaziorik sortu barik eta herrialde zordunduei beren kanpo-zorraren interes gehituak birritan ordaintzera behartu gabe.

Schmitt-en teoria monetario berriak analisi zehatza ematen du eta erakusten du nola eratu beharko litzatekeen nazioarteko ordainketen sistema aipaturiko emaitza horiek lortzeko. Are garrantzitsuagoa dena, analisi berriak ebazpen praktikoa proposatzen du herrialde bakoitza kanpo-zorraren zerbitzuaren bigarren zamatik babesteko (ikus Schmitt eta Cencini, 1991). Praktika hori martxan jarriko balitz, ebazpenak kanpo-zorraren zerbitzua ordainketa bakar batera murriztuko luke; horrela, herrialde zordunduei berauek beren hartzekodunei ordaindutako interesaren irabazi baliokidea emanen lieketela. Kasurako, 1988an, Mexikok 12.589 milioi dolar aurreztuko zituzkeen, Argentinak 8.976 milioi dolar eta Brasilek 12.446 milioi dolar. Herrialde horietako bakoitzak kopuru eskuragarri bat edukiko zukeen, kanpo-zorraren zerbitzuaren “zulo beltzean” galdua izan dena.

Gaur egungo nazioarteko ordainketen “ez-sisteman” herrialde zordunduek galtzen duten erreserba ofizialen gutxitze ez-justifikatua beren interes-ordainketen baliokidea da, Schmitt-ek argi frogatu duenez (2000a, b; 2004), eta herrialde horien Altxor Publikoek jasaten duten galera neurtzen du. Schmitt-ek proposaturiko erreformaren ildotik (Schmitt eta Cencini, 1991) galera horiek alboratuak izanen dira betiko. Egungo sisteman, aldiz, kanpo-zorra betiko zor bihurtzen da.

### **10.3. Europar Batasunaren ajeak**

Hemen aipatuko dena moneta nazional desberdinen artean eratu nahi den edozein gune monetariorik aplikatu dakiok, edozein area monetario homogeneotan erabil daiteke, non nazio monetario desberdinen subiranotasun monetarioa gorde nahi baita.

Truke-tasen fluktuazio erratikoak zirela-eta, 1992an Europar Sistema Monetarioak porrot egin zuenez, Europar Batasuneko estatuek, beren subiranotasun monetarioari uko eginez, Maastrichteko Itunaren bitartez, egonkortasun monetarioa lortu nahi izan zuten. 2002an Europar Batasunean (EB) euroa martxan ezarri zen.

Bistakoa da ezen moneta bakar batek moneta nazional ezberdin batzuk ordezkatzeko badiu, haien arteko truke-tasak deuseztatzen dituela, moneten arteko fluktuazioak alboratuz. Dena den, frogatu behar dena hau da: alde batetik, (i) subiranotasun monetarioari uko egitearen efektu negatiboak truke-tasak deuseztatzearen abantailak baino txikiagoak direla; eta bestetik, (ii) truke-tasen egonkortasuna ezin dela lortu nazioek beren moneta nazionalak erabiltzeari uko egiten ez badiote.

Ikus ditzagun bi puntu horiek.

Schmitt-ek (1988) argi plazaratu zituen zenbait irizpide eta betekizun Europar Batasuna lortzearen, nazio monetario bakoitzak bere subiranotasun monetarioari utsiz. Alta, Maastrichteko konbergentzia-irizpideek gidatu dute egungo Europar Batasun monetarioaren eraikitzea.

Gaur egun dolarrekiko euroaren etengabeko gorabeherak euroaren gaineko espekulazioaren emaitza gisa ikusten dira, eta ez euroaren beraren ahuleziaren ondorio modura.

Dena den, kontuan hartu ez dena hau da, alegia, batasun monetarioak kapital-fluxu erabat libreak ekarriko dituela. Arraro samarra dirudi, zeren europar integrazioaren helburu nagusietako bat, baita batasun monetarioari buruzko itunak agertu baino lehen ere, kapital-fluxuak libreak izatea izan baita. Hala ere, analisi monetarioak frogatzen du ezen kapitala zirkulatzeko, librea dela soilik moneta bakar baten “esparru” monetarioaren barruan. Beste hitzez esanda, subiranotasun monetarioak muga nazionalen barruan kapitala libreki mugitzea ahalbidetzen du, baina galarazten dio herrialde batetik beste batera “ihes egitea”. Emaitza harrigarri hau partida bikoitzeko kontabilitatearen ondorio zuzena da. Bankuek emititua, dirua bat-batean atzera itzultzen da ordainketa bat gauzatzen den bakoitzean. Hortik segitzen du ezen produkzioaren bidez sorturiko errentaren kopuru osoa halabeharrez output nazionala “monetizatzen” duten (barneko) bankuetan gordailatua dela. Errentatik deribatua izanik, kapitala ere banku-gordailu bat da. Ezinezkoa da herrialde jakin batean eraturiko banku-gordailuen kopuru osorako, beste herrialde batera transferitua izatea. Kapital-ihesa beti herrialdeen arteko kapital-transferi modura kontsideratua izan da, zeren agenteak libre baitaude beren bankuei agintzeko beren erbesteko gordailuak transferitzea. Litekeena ote da, orduan, esatea inongo zentimok ezin duela alde egin berori sortua deneko banku-sistematik?

Erantzuna banku-diruaren izaerari dagokio. Diru-errenta banku-gordailu gisa definitua bada, logikoki ezinezkoa da banku-sistematik ateratzea eta beste banku batera transferitzea. Zer gertatzen da, orduan, agente batek bere bankuari bere erbesteko kapitala transferitzea eskatzen dionean? “Transfer” hitzak inpliketzen duenaren kontra, ezin kapital ez da irtetzen bere jatorrizko herrialdetik. Gure agentearen kontua zorduntzen du bere bankuak, **B**, zeinak trukean agenteari beste herrialde batean eraturiko banku-gordailu baten gaineko jabegoa ematen baitio.

Beraren hasierako kapitalak **B** bankuan erabat gordailatuta irauten du eta erbestearen gordailaturiko kapital atzeritar baten gaineko eskaeraren kontra trukatur da. Horixe da kapital-ihesaren kasuan gertatzen dena. Esaerak dioenaren aurka, herrialdeak —zeinaren egoiliarrek beren kapitalak beste herrialde batera transferitzen baitituzte— ez du galtzen inolako kapital nazionalik.

Horrek ez du esan nahi, noski, inongo galerarik ez dela jasaten, kasurako autoritate fiskalen aldetik. Izan ere, egoiliarrak arrakastatsiak badira beren kapitalak beren zerga-biltzailearengandik isilean ezkutatzean, bistakoa denez, egoiliarrek kaltea egiten diote herrialdearen barneko aurrekontuari. Hala ere, haien kapitalak ez dira irteten beraiek gordailatuta daudeneko banku-sistematik. Estatuarentzat galduak, kapital horiek oraingoz daude eskuragarri banku-sistema nazionalaren barruan.

Kapital-ihesaren analisi horren inplikazioak harago doaz. Badirudi muga nazionalak kapital-mugimenduen kontrako barrera efikazak direla soilik baldin eta beraiek subiranotasun monetarioan oinarritzen badira. Subiranotasun monetarioa ukatzen denean, “espazio” monetario berri bat sortzen da, non kapitala eskualde batetik bestera aske mugitu baitaiteke. Europar Batasun monetarioak emaitza hori ekarriko du, kapitalak masiboki Hegoaldetik Iparraldera mugituko direlako aukerarekin, eta Hegoaldean langabeziaren arriskua areagotuko da. Iparraldeko konkurrentziadunen maila berean ezarrita, Hegoaldeko enpresak ez dira gai izanen metatutako beren kapitalen kostu handiagoari aurre egiteko, eta laster beste enpresa batzuekin batzeko ala ixteko behartuak izanen dira. Fiat, Seat edo Renault enpresa handiak, esaterako, segur aski haien konkurrentziadun alemaniarrek bereganatuko dituzte, eta ondorioz langabezia sortu Hegoaldean. Kontua da ekonomia nazionalen arteko desberdintasun ekonomiko garrantzitsuei esker, azken hogeit urteetan zehar Europa barnean kapital-metaketaen prozesua kostu ezberdinetan gauzatu dela. Orain, horrela metaturiko kapitalak fruitua emanen du bera eratua izan den herrialdearen arabera. Batasun monetarioa lortu eta gero Hegoaldeko enpresek jasango duten mozkin-tasaren gutxitzeak enpresak berak arriskuan jarriko ditu, eta beraien produkzio-kostuak modu drastiko batez gutxitzea behartuko. Horrelako arazoak Europar Batasun monetarioan ez lirakeke azaldu behar. Hala ere, batasun monetarioak ezin izango ditu aurretik enpresek bereganaturiko zorrak, ezta beraien interes-zorrak zuritu ere. Kapital-metaketaen prozesu nazional-etako desberdintasunak kontuan hartu behar izan dira, eta ez dirudi batasun monetarioa biderik onena denik hori horrela izan dadin.

Kontua da ea truke-tasaren egonkortasunera iritsi zitekeen moneta nazionalak europar moneta bakarrak, euroak, ordezkatu barik, subiranotasun monetarioari eutsiz. Erreforma monetarioari buruzko Keynes-en plana oso aplikagarria zen hemen. EBko herrialdeek, batasun monetarioaren bidez, lortu nahi duten helburu berbera beste modu batez lor zitekeen (Schmitt, 1988), langabeziaren gaineko ondorio dramatikoak izateko inolako arriskurik gabe. Egonkortasun monetarioa berma-tzearen, nahikoa izan zitekeen Europako Banku Zentralari eskatzea kideak diren herrialdeen artean euroa erabiltzea eta Europar Konpentsazio ganbara modura aritzea. Izan ere, Europak bere herrialdekideen artean truke ekonomikoak hobetuko zituen sistema bat praktikan jartzeko aukera handia izan zuen, herrialde

bakoitzari aukera eman ez politika monetario eta politika fiskal egokiak erabiltzeko, beraien arteko konbergentzia ekonomikoa modurik onenean segurtatzearen.

Europako Banku Zentrala jadanik existitzen da. Arazoa da Banku Zentrala beste modu batera eratu behar zela. Erraza zen Banku Zentral hori beste modu batera antolatzea, Keynes-ek bere Nazioarteko Konpentsazio Ganbararako nahi zuen zeregina banku horrek gauza zezan. Konpentsazio-printzipioak nahiko ezagunak dira. Dena den, espero dezagun Europan arrazoia nagusitzea, Europa langabeziaren gehikuntza drastiko batetik libre izan dadin.

#### **10.4. Estatuaren barneko arazo ekonomikoak**

Bi arazo dira nagusi estatuaren barnean: inflazioa eta langabezia.

##### *10.4.a. Inflazioa*

Inflazioa ez dagokio agenteen portaerari. *Kontsumitzaileek, inbertsiogileek, enpresek eta merkataritza-bankuek hartzen dituzten erabakiak edozein direlarik, ezin diote inoiz inflazioari eragin.* Unitate monetarioek beren hasierako erosteko ahalmenaren parte bat galtzen badute, ez da agenteen erabakiak ezegokiak izan direlako, baizik eta ordainketa batzuk gaur egungo banku-sistemen kontabilitatean gaizki sartuak direlako. Beraz, Banku Zentralen zeregina ez da erabakiak kontrolatzea, merkataritza-bankuei diruaren, errentaren eta kapitalaren ordainketa-sistema egoki bat hornitzea baizik.

Beste alde batetik, moneta nazional bat output nazional korrespondentearen forma edo era denez, ez da egokia “inportaturiko” inflazioaren bila abiatzea, kanpo-ondasunen prezioen aldaketak direla-eta edo kanpoko truke-merkatuko debaluazioa dela-eta. Kanpo-ondasunen eta kanpo-moneten edozein aldaketak ez dio eragiten moneta nazionalaren eta output nazionalaren arteko erlazioari.

Inflazio “inportatuaren” kontzeptua argitzeko, nazioarteko transakzioek induzitutako diruaren eta outputaren arteko erlazioaren aldaketari begiratu behar zaio. Schmitt-ek dioenez, barneko monetaren sormen inflaziogilea esportazioak kanpoko diruan ordaintzen diren bakoitzean agertzen da. Hona zergatia: kanpo-moneta horren erreserba-estatusa dela-eta, herrialde esportatzaileen banku-sisteman aktibo gisa sartua da. Sistema monetarioaren egitura desegokia dela-eta, hemen ere agertzen da inflazioa. Izan ere, monetak ondasun errealak balira bezala asimilatuak direnez —aktibo positibo gisa era okerrean hartuak direlako—, moneta horien kontrapartidan, barneko diruaren kopurua sortzen da.

Autore batzuek inflazioa lotu dute moneta-alokairuen gehikuntzaren eta lan-indarraren lehiakortasunaren gehikuntzaren arteko desberdintasunarekin. Beste batzuek, aldiz, inflazioa enpresen eta langileen arteko errentaren banaketari lotu diote. Schmitt-ek argi frogatu duenez, outputa alokairu-unitatetan neurtzen da. Hortaz, analisi ekonomikoetan, lan-indarraren lehiakortasuna edo produktibitatea ezin da neurtu langileen ordainketari so egin gabe. Lan-indarraren produktibitatea eta diru-alokairuak, biak, errealitate berberari dagozkie.

Bestetik, errentaren banaketak ez dauka zerikusirik fenomeno makroekonomikoa den inflazioarekin. Izan ere, agente desberdinen artean egon daitekeen banaketaren inguruko gatazkak ezin du aldatu errentaren kopurua bera. Hortaz, eskari osoaren eta eskaintza osoaren arteko erlazio makroekonomikoa —inflazioa definitzen duena— ez du ukitzen gatazka horrek, zeina erosteko ahalmen konkretu baten *banaketari* baitagokio.

Presio inflaziogileek produkzio-prozesuan daukate jatorria, ez jadanik produkturiko ondasunen zirkulazioan. Ordezkapen-ondasunen —hau da, kapital finkoaren amortizazioan— produkzioa da ikertu behar dena inflazioaren kausak adierazteko.

Schmitt-ek argitu bezala, anomalia inflaziogilearekin (eta deflaziogilearekin ere) bukatzeko, halabeharrezkoa da kontabilitatean erreforma monetario bat.

#### *10.4.b. Kapital finkoaren metaketa eta kontabilitate berria*

Schmitt-en diruaren eta produkzioaren teoria berriaren arabera (Schmitt, 1984), kapital-metaketa fluxu monetarioetan eta fluxu finantzarioetan oinarritzen da, hau da, alokairuen, mozkinen eta inbertsioen eraketan. Alokairuen eta mozkinen kontzeptuak argi dauden bitartean, inbertsioen analisiak ondoko ikerketa behar du, alegia, enpresek mozkinak nola erabiltzen dituzten jakitea.

Fokapen makroekonomiko berriak dioenez, gaur egungo banku-kontabilitateak ez ditu bereizten mozkin birbanatuak mozkin inbertituetatik. Nahiz eta interes eta dibidendu gisa edukitako mozkinak azkenik ondasunetan eta zerbitzuetan gastatuak izan, inbertituriko mozkinak kapital finkoan metatzen dira, kapital finkoak aurrezki makroekonomikoa definitzen duelarik, hots, kontsumitzen ez den eta kapital-ondasunetan (edo zehazkiago “produkzio-medioetan”) inbertitua den errenta nazionalaren partea. Konkretuki, egungo ordainketak kontabilitate-departamentu soil batean dira sartuak, mozkin banatuak izan zein mozkin inbertituak izan. Horrek diru-errentaren eraketa eta kapitalaren eraketa nahasten ditu. Ondasunen eta zerbitzuen kontsumoa inbertsioetik banatzearen, kontabilitate-teknika berri bat garatu du Schmitt-ek.

Banku-diruaren partida bikoitzeko kontabilitatearen izaera dela-eta, balantze-orrian, errenta korrontea nahitaez pasibo gisa sartua da, aktibo aldean sarrera baliokide batek orekatuta. Izan ere, banku-gordailuek zor bat —bankuak gordailatzaileekiko— definitzen dute, kreditu baliokideak —zeina bankuek jendearekiko aurrez aurre baitaukate— orekatzen duena. Bankuek gordailuen jabeei beren bezeroek berei zor dieten kopuru berbera zor diete. Hori horrela da zeren bankuek maileguz hartzen duten kopurua maileguz ematen baitute. Enpresen onurako bankuek gauzaturiko alokairuen ordainketaren kasuan langileak kreditatuak dira diru-errenta kopuru batekin, zeina beraiek berehala gordailatzen baitute. Horrela, bankuei alokairuak maileguz emanak zaizkie, eratuak diren bezain laster. Partida bikoitzeko kontabilitatearen teknikak erakusten du ezen, halabeharrez, enpresei bankuek langileengandik maileguz hartzen dutena bankuek berek maileguz ematen dietela. Alokairuen ordainketaren emaitza modura, enpresek bankuei zor egiten diete eta bankuek langileei. Hortaz, enpresek dauzkaten kostuen ordainketari dagokion zorra langileek maileguz emandako errentak estaltzen du. Eratua den

aldiunetik ondasun merkatuan definitiboki gastatua den aldiunera, errenta beronen jabeek aurrezten dute eta enpresei maileguz eman, enpresek beren produkzio-kostuak horrela estaliz. Enpresek definitiboki gastaturiko errenta ez dago deuseztaturik. Alderantziz, beraren azken gastua beranduagoko aldiune batean gauzatuko da, ondasun eta zerbitzuen merkata benetan garbitua izanen denean. Errenta eratua eta maileguz emana deneko aldiunetik eta azkenik gastatua izan deneko aldiunera gordeta dago kapitalaren eran, *denbora-kapital* bat, zeinaren zeregina, Keynes-i parafraseatuz, oraingo eta etorkizuneko jauziaren gaineko zubia egitea baita.

Schmitt-ek beste kapital mota baten eraketa adierazi du, klasikoek *kapital zirkulatzailea* deitu zutena, alegia, enpresek beren inbertsioak finantzatzeko behar duten fondoak. Analisi monetario berria termino makroekonomikoetan garatua da. Beraz, kapital zirkulatzailea ezin interpreta daiteke ikuspuntu mikroekonomikoetan. Arazoa ez da esplikatzea enpresa konkritu batek, bere inbertsioak gauzatzeko, nola jaso dezakeen fondo nahikoa, baizik eta nola gizarteak, osotasun gisa, bere errenta korrontetik kapital bat era dezakeen, eta berori inbertitzea produkzio-medioetan.

Kapital finkoko metaketa baten prozesua hasteko, gizarte batek bere errenta korrontetik parte bat aurreztu behar du eta kapital zirkulatzaile bihurtu. Lehen-dabizi enpresek mozkin positibo bat eskuratu behar dute. Enpresen multzoek soilik mozkin bat bereganatu dezakete hasierako errenta-jabeengandik, eta horrela eginez, enpresek ez-saldutako ondasunen stock bat edukitzea onartzen dute. Mozkin monetarioa eta oraindik ez-salduriko ondasunen stock erreal korrespondentea dira kapital zirkulatzaile baten bi aurpegiak; kapital zirkulatzaile hori geroago erabil daiteke kontsumo-ondasunen produkzioan jadanik enplegaturiko langile batzuek kapital-ondasunen produkzioan desbideratuz.

Teoria makroekonomiko berriaren arabera, kapital-metaketa bide egokiaren edo bide desegokiaren (hots, patologikoaren) bitartez gauza daiteke. Diruaren, errentaren eta kapitalaren arteko desberdintasunak kontuan hartuz, ordenak ondo-koa behartzen du, alegia, bankuek ordainketak partida bikoitzeko kontabilitate-egitura batean erregistratzea, non kapital-transakzioak errenta-fluxuetatik bereizten diren. Beste hitzez esanda, ordainketa-sisteman diruaren, errentaren eta kapitalaren izaerarekin ados egoteko, bankuetan hiru departamentu bereizi behar dira fluxu monetarioak, finantzarioak eta kapital-fluxuak kontuan edukitzeko. Horrela egin ezean, gaur egun banku-sistematan gertatzen den moduan, kapital-metaketa-  
ren prozesuak inflazio- eta deflazio-anomaliak ekartzen ditu.

Kapital-metaketari dagokionez, prozesu patologikoa honela karakteriza daiteke, alegia, nahiz eta enpresek inbertituak izan, mozkinak oraindik eskuragarri daude banku-gordailu mailegarri gisa. Logikoki, kapital finkoko ondasunen produkzioan inbertituriko mozkinen parte ez dago honezkero eskuragarri merkatu finantzarioan. Gizarteak bere osotasunean definitiboki aurrezten duena ezin dakioke inori maileguz eman. Alta, logikaren kontra, horixe da gaur egun gertatzen dena, zeren inbertitutako mozkinak errenta-gordailu berri gisa berragertzen baitira. Horrela *bikoiztasun* baten aurrean gaude, errenta berbera —produkzio-medioen produkzioan gastaturiko mozkinak— berriz ere eskuragarri dago ondasun-

merkatuan beste gastu bat gauzatzeko. Schmitt-ek frogatu duen bezala, bigarren gastu hori inflaziogilea da, zeren errenta konkretu batek ezin baitu bere erosteko ahalmenak definitzen duen eskariaren bikoitza sortu. Egun kapital-metaketaren prozesu patologikoa karakterizatzen duen eskariaren gehitzea erabat nominala da eta unitate monetario bakoitzaren erosteko ahalmenean gutxitze proportzionala ekartzen du.

#### *10.4.c. Stagflazioaren (inflazioa eta langabezia) patologiaren aurka*

Euskal Herriko ekonomian kanpoko eraginak —mundu mailakoak nahiz europar mailakoak— eta barnekoak kontuan eduki behar dira. Gainera, eta barnera begira, stagflazioa hain hedatuta dagoenez, eta oso kaltegarria denez, bi hitz esan dezakegu alokairuaz, mozkinaz, aurrezkiaz eta inbertsioaz. Stagflazioa —langabezia gehi inflazioa— arazo makroekonomikoa da. Beraz ez dagokie ez agenteen portaerari, ez inbertsio motei, ez alokatuen soldatei.

Inflazioa unitate monetario bakoitzak jasaten duen erosteko ahalmenaren galera gisa definitua da, eta nazio barneko diruaren eta ondasun eta zerbitzuen output korrontearen arteko erlazio numerikoan aldaketa batek kausatzen du. Langabezia —deflazioa— eskariaren eskasiarekin dago loturik.

Bi anomaliak —inflazioa eta langabezia— kausa berberetik datozen arren —alegia, kapital metaketaren prozesu patologiko batetik—, soilik koexistitzen dira kapital-metaketaren prozesuaren maila konkretura iritsi eta gero. Kapital-metaketaren lehen fasean inflazioa agertzen da lehendabizi. Eskari osoaren gabezia metaketaren maila garatu baten ezaugarria izanik.

Langabezia, bere erarik patologikoenean, aipatu dugunez, eskari osoaren gabeziari dagokio. Beste hitz batez ezagutua, deflazioa ez dagokio inolako azterketa mikroekonomikori, ezta portaerazko inongo mekanismori ere. Izan ere, ikuspuntu mikroekonomikotik esan litekeenaren kontra, eskaria osoa ez du determinatzen agente ekonomikoek gastatu nahi duten errenta-kopuruak, baizik eta globalki eskuragarri dagoen errenta-kopuruak. Azken bitartekari moduan, bankuek maileguz ematen dute haiei maileguz ematen zaiena. Are gehiago, partida bikoitzeko kontabilitatearen arauen arabera, bankuek beren bezeroek gordailaturiko kopuru zehatza besterik ezin dute maileguz eman. Aktiboen eta pasiboen arteko beharrezko balantzeak erakusten du hori horrela dela. Hortik segitzen du ezen eraturiko errentaren osotasuna banku-sisteman gordailatua dela, eta eskari baliokidea sorrarazten duela, errentaren hasierako jabeen aldetik edo bankuek luzaturiko maileguaz profitatzen direnengandik. Beraz, aurrezki mikroekonomikoek ez dute sortzen inolako eskari makroekonomikoren murrizketarik.

Produkzioak errenta sortzen badu eta errentaren osotasunak eskari osoa sorrarazten badu, nola egon daiteke desberdintasun numeriko bat eskaintza osoaren eta eskari osoaren artean? Eta baldin eta eskari osoaren gabezia langabezia patologikoaren ezaugarria bada, nola adieraz daiteke stagflazioa? Inflazioa eskaintza osoaren gaineko eskari osoaren gehitze gisa definituz, gerta ote daiteke benetan eskari osoa, batera, eskaintza osoa baino handiagoa eta txikiagoa izatea?



Langabeziarekin bukatzeko, litekeena ote da alokairuen eta prezioen malgutasuna proposatzea? Arazo pragmatiko hutsa ote da langabezia? Egungo mundu globalizatuan, nola euts diezaiokete konkurrentziari enpresariak baldin eta etxeko alokairuak gainerako munduan ordaindutako alokairuak baino handiagoak badira?

Keynes-ek zertxobait aipatu zuen arazo bikoitz horren aurrean. Izan ere, berak zioenez, alokairuen egonkortasuna berdin aplika dakiokete sistema itxi zein ireki bati «baldin eta gainerako munduarekiko orekari truke fluktuagarrien bidez eutsi ahal badakioke» (Keynes, 1936, *General Theory*). Horixe da hain zuzen ere, postkeynesiar batzuek zuzenki azpimarratzen dutena.

Langabezia eskariaren eskasiarekin dago loturik. Keynes-en ustez, langabezia alboratzearen, eskariaren urritasunari begiratu behar zaio. Produkzioak sorturiko errenta, kontsumo- eta inbertsio-ondasunetan nola gastatzen den da gakoa. Horrela, eskari osoaren maila oztopoa izan daiteke enplegu osoa lortzeko. Hortaz, langabeziari aurre egiteko Keynes-en erremedioa: estatuaren parte-hartzea eskari osoa gehitzeko asmoz. Erremedioa aspalditik martxan jarri zen. Kontua da beste arazo bat agertu zela: inflazioa. Eta okerrena dena orain ezagutzen dugu: stagflazioa, alegia langabezia gehi inflazioa.

Arazo bikoitz horri aspalditik eman dio erantzuna Schmitt-ek (1984, 1996). Irtenbidea bankugintzaren eginkizunari dagokio. Zehaz dezagun irtenbidea.

Autore horrek honakoa argudiatzen du, alegia, ondasunen produkzioan —eta, beraz, ondasun horien hornikuntza baldintzatuz— parte hartzen duten faktore-kostuen ordaintzak erosketan gastatuko den diru-errenta sortzen du. Noski, horrek ez du esan nahi ezen eskari osoaren prezioak halabeharrez hornikuntzaren prezioa berdintzen duenik. Alderantziz, mozkinak produkzio-faktoreen kostuen gaineko salmenten demasia da.

Eskari osoa errenta-banaketaren teoria bati dago loturik; mozkinak alokairuen birbanatuak dira: erosleek enpresei transferitzen dizkietenak, prezioak faktore-kostuak baino handiagoak direnean.

Izan ere, Schmitt-en arabera, eta langabeziari dagokionez, errentaren banaketan mozkinak alokairuen birbanaketari dagozkio. Prezioak produkzio-faktoreen —langileen— kostuak baino handiagoak direnean, erosleengandik enpresetara doaz mozkinak. Horrek ondokoa esan nahi du, alegia, lan-indarrari ordaindutako alokairuek, eta soilik berauek, output osorako ordaintzeko behar den diru-errenta beharrezkoa eta nahikoa eratzen dutela. Beraz, funtsean, mozkinen eraketa eta gastatzea alokairuen fluxu zirkularrean daude sarturik: alokairuak enpresek ordainduak dira eta langileek eta (beraiei alokairuak transferituak diren heinean, langileen tokia hartzen duten) mozkin-irabazleek gastatuak ondasun-merkatuetan.

Nahiz eta enpleguak output osoa ordaintzeko beharrezkoak eta nahikoak diren alokairuak —errentak— sortu, produkzioaren errentagarritasuna merkatuen menpe geratzen da, hau da, erosketen menpe. Produkzio-maila baterako, eta, ondorioz, enplegu-maila baterako, eta kontsumorako jarrera kontuan edukiz, alokairu-irabazleak ez daude nahitaez prest produzitutako ondasunak enpresek nahi duten mozkinak barnean daukan prezioa ordaintzeko. Kasu horretan, enpresek beren



produkzioa murriztuko dute, eskaintzaren eta eskariaren arteko ratio egokiago bat segurtatzeko. Hortaz, enpresen mozkinak produkzio-faktoreen gaineko prezioen gehikuntza dira, ez ekonomia osorako inolako errenta gehigarririk. Mozkinak alokairu transferituak dira, langileengandik enpresetara.

Teoria berri horren arabera, mozkinak ez dira alokairuei gehitu behar zaien ezer; mozkinak langileengandik enpresetara, ondasunen salmantan, transferituta alokairuen parte bat dira (mozkin-irabazleek langileen lekua hartzen dute, alokairuak beraiei transferitzen zaizkien heinean).

Enpresariak mozkinak bereganatzen dituzte alokairu-irabazleen (langileen, zentzu zabalean) kontura. Izan ere, produzitutako ondasunen —kontsumo-ondasunak eta kapital-ondasunak— erosketan mozkinak gastatzen direnean, mozkinen birbanaketatik profitatzen diren agente ekonomikoek (interesetan eta dibidenduetan) eta enpresariak ondasunak eskuratzen dituzte, alokairu-irabazleen ordez.

Beraz,  $A$  euroko alokairuak produzitutako ondasunen erosketan gastatzen dira zuzenki edo zeharka (hots, mozkinen forman). Baina enpresariak ondasunetan mozkinak gastatu barik, mozkin horiek gorde ditzakete beren enplegatuei alokairu gisa ordaintzeko. Kasu horretan,  $M$  mozkinak merkatuan hornitutako ondasunak erosteko ez dira gastatzen: beraiek  $A'$  alokairu berriak eraten dituzte, berriki produzitutako ondasun gehigarrii dagozkienak. Hortaz,  $M$  mozkinak eta mozkinetatik ordaindutako  $A'$  alokairuak  $A'$  berdintzen duen eskaria definitzen dute, ekonomian ( $M + A'$ ) eraturiko errentaren ordez ( $M$  transferitua da langileei aurretik ordaindutako alokairuetatik). Bide horretan eraturiko eskariaren urritasuna ez da, berez, itzulezinezkoa, zeren, alokairu-irabazleek beren alokairu berriak gastatzen dituzten heinean, enpresariak beren mozkinak berreskuratzen dituzte eta ondasunetan gasta ditzakete. Baina baldin eta mozkinak behin eta berriz, eta proportzio handietan, alokairuen ordainketarako erabiltzen badira, eskariaren urritasunak enpleguari kalte egin diezairoke (Schmitt, 1984). Malformazio hori mozkinetatik egindako alokairuen ordainketari dagokionez, Schmitt-ek banku-sistemaren fluxu monetarioen eta finantzarioen aldaketa sakona proposatzen du, errentaren gastua —mozkinak— eta errentaren eratzea —alokairuen ordainketa— erabat bereiziz. Bide horretatik, alokairuen ordainketak eta mozkin-gordailuak bankugintzan bertan bereizten dira. Horixe da, hain zuzen ere, Ricardo zaharrak nahi zuen bankugintzaren bereizketa: alde batetik, diruaren emisioa —alokairuak ordaintzearen—; bestetik, bankuek gauzatzen duten finantzaketa —diru-gordailuak eta berorien mailegatzea—.

Hortaz, eskari osoa eta eskaintza osoa ez dira egokitzen prezioen eta alokairuen bitartez, alokairuen fluxu makroekonomikoen bidez baizik.

Langabezia, bere erarik patologikoenean, lehen aipatu dugunez, eskari osoaren gabeziari dagokio. Beste hitz batez ezagutua, deflazioa ez dagokio inolako azterketa mikroekonomikori, ezta portaerazko inongo mekanismori edo agenterik ere. Errenta banku-gordailu gisa eratua den moduan, altxorgintza logikoki ezinezkoa da; hortaz, kontsumitzailearen portaerak ez dauka zerikusirik eskariarekin. Izan ere, ikuspuntu mikroekonomikotik esan litekeenaren kontra, eskaria osoa ez du determinatzen agente ekonomikoek gastatu nahi duten errenta-kopuruak, baizik eta globalki eskuragarri dagoen errenta-kopuruak. Azken bitartekari mo-

duan, bankuek maileguz ematen dute haiei maileguz ematen zaiena. Are gehiago, partida bikoitzeko kontabilitatearen arauen arabera, bankuek beren bezeroek gordailaturiko kopuru zehatza besterik ezin dute maileguz eman. Aktiboen eta pasiboen arteko beharrezko balantzeak erakusten du hori horrela dela. Hortik segitzen du ezen eraturiko errentaren osotasuna banku-sisteman gordailatua dela, eta eskari baliokidea sorrarazten du, errentaren hasierako jabeen aldetik edo bankuek luzaturiko maileguaz profitatzen direnengandik. Beraz, aurrezki mikroekonomikoek ez dute sortzen inolako eskari makroekonomikoren murrizketarik.

Baina ez da bistakoa nola eskari korrontea eskaintza korrontea baino txikia izan daitekeen.

Produkzioak errenta sortzen badu eta errentaren osotasunak eskari osoa sorrarazten badu, nola egon daiteke desberdintasun numeriko bat eskaintza osoaren eta eskari osoaren artean? Eta baldin eta eskari osoaren gabezia langabezia patologikoaren ezaugarria bada, nola adieraz daiteke stagflazioa? Inflazioa eskaintza osoaren gaineko eskari osoaren gehitze gisa definituz, gerta ote daiteke benetan eskari osoa, batera, eskaintza osoa baino handiagoa eta txikiagoa izatea?

Teorialari neoklasikoek, monetaristek eta keynesiarrek ez diote aurreko dilemari inolako erantzun egokirik eman. Inflazioak eta deflazioak, izatez, jatorri komuna daukate —kapital-metaketaen prozesu patologikoa—, zeinak elkarrekin bateragarriak izatea lortzen baitu. Horrek ez du esan nahi, hala ere, bi anomaliak halabeharrez konkomitanteak direnik.

Inflazioa da gure sistema monetarioen defuntzionaltasunaren lehen anomalia. Mozkin inbertituen gordailu birberrituak sorturiko bikoitzetasunak numerikoki eskari osoa gehitzen du, eta sisteman eskuragarri dagoen unitate monetario bakoitzean erosteko ahalmenaren galera ekarri. Inflazioak anomalia bakarra izaten segituko du, inbertsioak mozkingarriak izaten dirauen bitartean, hau da, interes-tasa naturala merkatuko interes-tasa baino handiagoa den artean (Wicksell, 1898/1965).

Hala ere, egoera hori behin-behinekoa da, kapital finkoaren amortizazioak gain-metaketaen prozesua baitakar. Horrela, kapitala gero eta arinago handitzen da; horrek nahitaez mozkinen eta kapitalen arteko ratioa gutxitzen du. Ratio hori merkatuko interes-tasara hurbiltzen denean, enpresek beren mozkinen osotasuna ondasun instrumentalen produkzioan inbertitzeari uzten diote. Kapitalean gehitze handiegia alboratzearen —gehitzeak beraren ordainketa ezinezko bilakatuko baitu—, enpresen multzoak bere mozkinen parte bat kontsumo-ondasunen produkzioan inbertitzen du. Horrek ondasun-merkatuan ondasunen eskaintza osoa gehitzen du, haren erosketa finantzatzeko errenta eskuragarria aldatu gabe utziz.

Zergatik da horrela? Produkzioak outputaren azken erosketarako behar den errenta sortzen du, alokairuen ordainketak aurretik existitzen den errentaren gastua inplikatzen ez badu. Hauxe da, hain zuzen ere, alokairuak mozkinetatik ordaintzen denean gertatzen dena. Kasu horretan, alokairuen ordainketarako gasaturiko errentak ezin du gehiagorik finantzatu ondasun-merkatuan eskatzen diren kontsumo-ondasunen erosketa. Beste hitzez esanda, banku-kontabilitatean departamentu finantzarioa eta kapitalaren departamentua bereizirik ez daudenean,

inbertsioak errenta erreal bat errenta nominal huts batekin ordezkatzera darama. Kapital-metaketa prozesuaren maila goiztiarrean hori gertatzen denean, gehitze nominalak soilik inflazioa inplikatzen du. Hala ere, geroagoko maila batean gertatzen bada, kapital finkoko ondasunen produkzioa partzialki alokairu-ondasunen produkzioak ordezkatzeko duenean, gehitze nominala ez da gai eskaintza errealeko gehikuntzara iristeko. Kontsumo-ondasun berrien erosketak erosketa-ahalmen positibo bat behar du, eta ahalmen hori errenta erabat nominalak ez dauka.

Beraz, deflazioa kapital-metaketa prozesu patologikotik dator, prozesu hori maila konkretu batera behin iritsiz gero, non kapital finkoa lehen handitu zen abiaduran ezin baita gehiagorik hazi. Kapitalaren gain-metaketa —eskari osoaren hedadura inflaziogilea karakterizatzen duena— eta kapital-metaketa gutxitzea —eskaintza osoan gehiketa deflaziogilea karakterizatzen duena— biak gertatzen dira errentaren eta kapitalaren bereizketa logikoa bankuetako kontabilitate-egituran islatzen ez delako.

Schmitt-en teoria berriak “egiturazko” inflazio-analisia garatu du, diruaren, errentaren eta kapitalaren kontzeptuak bereiziz. Kapital-metaketa prozesuak diru “hutsako” kopuru baten sormena inplikatzen du eta, nahiz eta kapital finkoan eraldatua izan, prozesu horretan errentak merkatu finantzarioan eskuragarri egoten segitzen du. Schmitt-ek argitu bezala, anomalia inflaziogilearekin eta deflaziogilearekin bukatzeko, kontabilitatean erreforma monetario bat halabeharrezkoa da.

Gaurko bankugintzaren jardueraren arabera, mozkinak (birbanatuak zein inbertituak izan) kontabilitate-departamentu soil eta bakar batean sartzen dira. Horrela diru-errentaren eraketa eta kapitalaren eraketa nahasten dira. Irtenbidea, mozkin horiek banatzean eta bi departamentu desberdinetan sartzean datza (Schmitt, 1984, 1996).

Bereizketa hirukoitza —departamentu monetarioa, finantza-departamentua eta kapital finkorako departamentua— bankuen kontabilitatean giltza da bankugintza berrian.

(i) Lehendabizi, lehengo bi departamentuen arteko bereizketa argiak segurtatzen du ezen bankuen finantza-departamentuan erregistratutako edozein gordailuk substantzia bat daukala, hau da, kontsumo-ondasunen stock bat, erosteko ahalmenaren helburu gisa. Banku-kreditu gehiegi sortzea alboratuz, bikoiztasun horrek segurtatzen du ezin dela sortu gordailurik lapitz-kolpe baten bidez soilik. Existitzeko, edozein gordailuk banku batek monetizaturiko ondasunen eta zerbitzuen produkzioa irudikatu behar du; izan ere, ondasun ekoiztuen merkatuan outputa saldu arte, azken output hori monetizatzen deneko forma monetarioak baitira banku-gordailuak. Alokairua ordaintzeko, enpresaren zorra objektiboki definitzen duen stock fisikoaren neurri monetarioa da produzituriko output berria —gordailu gisa II. departamentuan erregistratua—. Alokairu korronea produkzio-faktoreen merkatuan ordaindua denean gauzatu da aipatutako neurria, eta ezin da aldatu output korrespondentearen zirkulazioan, ez produktu-merkatuan, ezta finantza-merkatuan ere, zeren I. eta II. banaketa bikoitzak automatikoki alboratzen baitu kreditu gehiegi sortzea.

(ii) Bigarrenez, kapital finkorako departamentuaren sarrerak segurtatzen du ezen produkzio-prozesuan inbertitutako edozein mozkin dagoela sarturik berriki produzitutako produkzio-medioetan. Kapital-ondasunen antzera, azkenik aurrez-turiko errenta izanik, mozkin inbertituen kopuru osoa ezin da zirkulazio finantzarioan mantendu, zeren, bestela —gaur egungo kasuan bezalaxe— fondo bat definituko bailuke, inolako objektu salgarriari lotu barik. Output salgarri osoaren gaineko eskari demasiaren definizioa, preseski errealki saltzeko diren ondasun edo zerbitzuen bolumenaren errenta osoaren inflazioak ematen du. Hitz bitan, eduki ez-nahikoaren gaineko fondo demasiak definitzen du tarte inflazilogilea.

Hiru departamentuak martxan jarri eta gero, enplegu osoko eskaintzak halabeharrez eskari berdinkidea sorraraziko du. Schmitt-en pentsamendu ekonomikoak tradizio historikoari jarraitzen dio: produktuak produktuen kontra trukutzen dira, produktu nazionala produktu nazionalaren aurka. Ortodoxiak uste du produktuak moneta-kopuruaren kontra trukutzen direla; baina, moneta ez da ondasun bat ez bada berak eduki duen produktuan; truke monetarioetan edo truke monetarizatueta, beti produktuak produktuen aurka trukutzen dira. Edozein errentaren hasierako eraketa mota horretako trukea da, produktu nazionala monetan aldatua izanik, hau da, bere kontra trukaturia izanik.

## 11. Euskal langileriaren eginkizunak eta betebeharrak

Nola neur daiteke egungo aberastasuna, alegia, ondasunak eta zerbitzuak? Zer suposatzen du langileriaren bilakaerak? Estatuak baino honago agertu diren mugimendu sozial berriak eta estatuak baino harago agintzen duena —dirua, alegia— kontuan edukiz, zein da egun egin behar den politika berria?

Badakigu sindikalgintzan langile asko ez daudela sindikaldurik. Egia esan, langile gehienak sindikatuetatik kanpo daude. Badakigu, halaber, langileriaren artean segmentazioa gero eta hedatuagoa eta zatikatzaileagoa dela, eta, nola ez, badakigu, ongi jakin, langabezia mingarria dela. Egoera horretan bazterrak astindu zituen 1995eko ELA-LABen agiriak, nazio-arazoa ozen aldarrikatu zuelako.

ELA eta LAB sindikatuek nazio-arazoan izan zuten ausardia oraingo *impasse* honetan ere kemen berbera izan lezaten nahi nuke, baita arazo sozial eta ekonomikoan ere antzeko ausardia eduki lezaten. Langileen interesen alde, langabeziari eta inflazioari aurre egiteko erantzun egokia eta beren proiektuak aurrera eraman ditzaten.

Gauza asko esan daiteke ezkerren porrotaz. Baina, lehen aipatu bezala, Adam Smith-engandik datorkigun eta Keynes-ek biribiltzen zuen mezua berrai-patu behar dugu: ondasun guztien iturria lan-indarra da. Are gehiago, ekonomialari gehienek kontra, ozen esan behar da ezen langileen alokairuek ez dutela inolako inflaziorik sortzen, ezta sorrarazten ere.

Ekonomialari gehienek ustez, sasi-intelektual guztien iritzi, eta enpresaburu askoren aburuz, inflazioa jaisteko hartu behar den lehen neurria —askoren ustez ia bakarra!— alokairuen murrizketa da. Beste aldetik, zenbait ekonomialari, Keynes-en lanei jarraituz, hots, errenta osoa alokairu-unitatetan neurtzen dela

aldarrikatuz, errenta hori langileon alokairuen kopurua besterik ez dela frogatzen ahalegindu dira, Marx-ek berak inoiz lortu ez zuen helburua. Kasurako, Schmitt-en iritziz, alokairuak errenta nazional osoa dira. Marx-en ustez, alta, alokairuak errenta nazionalaren zati bat besterik ez ziren, eta beste zatia “plusbalioa”.

Ondasunen jabegoari dagokionez, Marx-en sisteman ondasunen jabea enpresa da, eta enpresak produkzio-faktoreei, langileei, ordaintzen die (hori dela-eta, Marx-ek jabego “pribatuen” kontra jabegoa sozializatu nahi zuen.) Schmitt-en sisteman, aldiz, ondasunak enpresetan gordailatuak dira —enpresak “kontsignak” balira bezala—, eta produkzio-faktoreak, langileak zentzu zabalean, dira ondasunen jabe bakarrak (Schmitt, 1984).

Produkzio-faktoreen jabegoa gerta dadin —ez jabego juridikoa, egiazkoa baizik—, kontabilitatean zenbait aldaketa sakon egon behar dira, zeintzuk kapital finkoaren amortizazioari loturik baitaude. Aldaketa horiek, eta ez beste ezerk, nazio monetario baten barruko langabeziarekin eta inflazioarekin bukatzea ekarriko dute, aspaldian Schmitt-ek (1984, 1996) argi eta garbi frogatu duen moduan.

Soldatapekook, eta, beraz, sindikalgintza berriaren aldekoek, kapital finko horren sortzeaz eta amortizazioaz arduratu beharko lukete. Horrela eginez, konturatuak lirerateke ezen jabego pribatuen sozializatzek, berez, ez lukeela ekarriko inflazioaren eta langabeziaren bukaerarik (hori teorikoki ez eze, praktikan ere frogatua izan da ohiko “sozialismo errealeko” herrialdeen praxian).

Lehen esan bezala, langileen jabegoa ez datza maila juridikoan. Izan ere, enpresa mota guztietan, baita Euskal Herrian goraiatzaren diren kooperatibetan ere, barne-produktua alokairuen bidez neurtzen da, eta posiblekin alokairu horien zati bat besterik ez dira (Schmitt, 1984, 1996). Kapital finkoaren amortizazioei dagozkien emisio monetarioak hutsak dira, ez-beteak, eta langabeziaren erantzule soilak.

Sindikalgintza berriaren bidez lor daitekeen alokairuen gehikuntza, kapital finkoaren amortizazioan egoten diren emisio hutsen kontrako neurri zuzena da. Hortaz, euskal sindikalgintzak, eta euskal langileriak oro har, sasiteoria guztiei aitzia, hemen dauka erro teoriko sendoak bere alokairuen alde borrokatzeko argudio nagusia, eta bide batez, langabeziarekin bukatzeko neurri egokia.

Gaur egunean erresistentzian dago langileria, eskuinaren eraso gogor eta bortitzaren aurrean. Kezkagarriena ondokoa da, aspaldiko teoria zaharkituek eta porrot galanteran eraman dituzten sasiteoriek oraindik bizirik dirautela Euskal Herriko zenbait bazterretan.

Lehen esan bezala, langileriak erreminta kontzeptual berriak behar ditu. Burgesia langabeziari eta inflazioari irtenbidea emateko gai ez denean, monetarismoaren ildotik neurri gogorak eta izugarritzko erasoak jasaten ari garen unean, euskal langileriak bere burua altxatu beharra dauka, bere esparru nazionalan, Euskal Herri osoan, bere proiektu ekonomiko eta soziala gauzatu ahal izateko. Horretarako, monetaren arazoak halabeharrez ikertu beharko ditu.

## 12. Azken hitzak

Sokal-ek eta Bricmont-ek liburu zoragarri batean (1999) argi frogatu dutena aipatu behar da, alegia, egun oso zabaldurik dauden erlatibismo epistemologikoak eta kulturalak, iluntasuna eta nahastea gizarte-zientzietan sarraraziz, aparteko ahulezia ekarri diotela ezkerriari. Ez da iluntasun gutxiagokoa ohiko marxismo-leninismoaren eskematxoetan murgiltzen direnen diskurtso patetikoa.

Sokal-ekin eta Bricmont-ekin batera esan behar da ezen «ezein ezker mugimendu ezin dela eraginkorra izan gertakari zientifikoei, balio etikoei eta interes ekonomikoei dagozkien arazoak seriooki aintzakotzat hartzen ez badira».

Gaur egun aro berri batean bizi gara hala politikan nola ekonomian. Hamaika gauza dago egiteke gure herrian. Saia gaitezen egiteko horiek burutzen. Gauza askotxo ikasi dugu. Haien artean zer-nolako proposamenak baztertu, alboratu behar diren. Duda gutxi dago horretan. Utz diezaiogun leku bat eztabaidari, eztabaida zabalari, ezagutzen ez dugunak ez baikaitu beldurtu behar. Utikan nominalismoa! Gora eztabaida!

Gure aurrean, gure begien aitzinean egia potoloak eta biribilak deuseztatu, desagertu dira. Aldaketa gehiago etorriko dira, inolako dudarik gabe. Defenda dezagun, beraz, argi daukaguna: euskal hizkuntza, kultura, irakaskuntza... Egin diezaiogun leku, txikia bada ere, ekonomian dagoen eztabaidari. Erabil ditzagun bide demokratikoak euskal demokrazia berri bat eraikitzeko. Eta mundu korapilatsu eta aro zail honetan, erabil dezagun arrazoia gure proposamenak plazaratzeko eta bultzatzeko, *irrazonalkeriak* putzura besterik ez baikaitzake eraman. Izan ere, gure gizarteak pairatzen dituen gaitzak —langabezia, inflazioa, kanporra eta moneten arteko ezezagortasuna, arlo ekonomikoa soilik aipatzearren— ez dira inolako mirari esoterikoren eta irrazonalkeriaren bidez desagertuko.

Maila nazionalen, estatuaren barruan, kapital finkoaren gain-metaketarekin bukatu behar da. Alegia, Schmitt-en ildotik (Tobar-Arbulu, 2004,2005), estatu mailan langabeziari eta inflazioari aurre egin behar zaie. Horretarako banku-kontabilitatean hiru departamentu desberdin erabili behar dira: (a) jaulkipen-departamentua; (b) finantza-departamentua; eta (c) kapitalaren amortizazioari dagokiona.

Nazioarteko mailan, moneta-sistemak ongi funtzionatu beharko du. Egun pentsaezinezkoa da mundu mailako moneta bat jaulkitzea, Keynes-ek nahi zuen “bancor” bezalakoa. Beraz, estatu bakoitzean egin behar dira aldaketak: kanpoko transakzio guztiak departamentu berezi batean kontabilizatu, eta barneko transakzioekin bereziz (Schmitt eta Cencini, 1991).

Euskal Herria jadanik sarturik dago Europar Batasunean. Hortaz, euskal errepublika berrian, barnerako begira, bankugintzan eta kontabilitate arloan egin beharko diren aldaketak Europar Batasunean ere egin beharko dira. Horrek ez du ukatzen euskal banku zentralaren existentzia, euroak jaulkiko dituen, alderantziz baizik, haren rola oso beharrezkoa baita merkataritza-bankuen arteko egunero jardueran. Beste aldetik, kanpora begira, eta eurogunean jadanik egonik, gure kanpo-harremanak Europar Batasunak bideratzen ditu. Hortaz, Europar Batasu-

nari, bere osotasunean dagokio, kanpo-transakzio guztiak ongi bideratzea, departamentu berezi bat antolatuz eta barneko transakzioarekin ez nahastuz.

Behin Europar Batasunean sarturik, aukera bakarra daukagu: arlo monetarioan eta ekonomikoan behar diren aldaketa guztiak Europar Batasunak egin behar dituen aldaketei lotzea.

Aspaldian Europar Batasunean sartu gintuzten, inolako kontsultarik gabe. Gure etorkizuna Europa horretan gertatuko denari lotu behar diogu, onerako eta txarre-rako. Gainera, bankugintzan behar diren aldaketak errazago egin daitezke Europa mailan, bertan gai horretaz zenbait jende kezkatu dagoelako, ez soilik ikerketa mailako jendea.

Bankugintzan behar diren aldaketa sakon horiek martxan jarri ondoren, enpresen mozkinak, baita Euskal Herriko enpresenak ere, produkzioaren legamia gisa izanen dira. Izan ere, edozein mozkin neto —alegia, interesak gainditzen dituzten mozkinak— enpresaren benetako arrakastaren ezaugarria izanen dira.

Interesen gaineko mozkinak lortzearen, hauexek dira bide bakarrak: (i) lan-indarraren ahaleginak (gogoratu, Schmitt-en ikuspuntuan, lan-indarrak, bere zentzu zabal eta sakonean, direla benetan aberastasuna sortzen dutenak); (ii) horrez gain, arlo ekonomiko, politiko eta sozialez arduratzen diren enpresari berrien sormena; eta (iii) azkenik, irudikapen sortzailea eta abentura bera.

Aipaturiko aldaketa sakon horietan eta soilik horietan datza Euskal Herriaren errepublika independentearen subiranotasun ekonomikoa eta monetarioa.

## Bibliografia

- Cencini, A. (2005): *Macroeconomics foundation of macroeconomics*, Roudlege, New York.
- Gros Espiell, H. (1998): "El sentido actual del nacionalismo. Pueblo, nación y estado en el derecho internacional y en el derecho constitucional", *Nacionalismo vasco, Un proyecto de futuro con 100 años de historia*, XI. liburukia, Sabino Arana Kultur Elkargoa, Bilbo.
- Schmitt, B. (1984): *Inflation, chômage et malformations du capital*, Economica, Paris.
- , (1988): *L'Ecu et les souverainetés nationales en Europe*, Dunod, Paris.
- , (1996): "Unemployment, is there a principal cause?", in M. Baranzini eta A. Cencini (arg.) *Inflation and unemployment. Contributions to a new macroeconomic approach*.
- , (2000a): *The double charge of external debt servicing*, <<http://www.csbanca.ch/istituti/RMElab/workingpapers.htm>>.
- , (2000b): *Why the net interest on external debt weights double on LDCs*, <[www.csbanca.ch/RMElab/workingpapers.htm](http://www.csbanca.ch/RMElab/workingpapers.htm)>.
- , (2004): *Between nations, the interest multiplier is equal to 2*, ———
- Schmitt, B. eta A. Cencini (1991): *External debt. A vicious circle*, Pinter, London.
- Sokal, A. S. eta J. Bricmont (1999): *Imposturas intelectuales*, Paidós, Barcelona.
- Tobar-Arbulu, J. (1997): *Marxez haratago. Euskal independentzia eta subiranotasun ekonomikoa*, Txalaparta, Tafalla.
- , (1999): *Moneta-teoria berrirantz*, UEU, Bilbo.

- , (2000): *Euskal Herria bere gain. Euskal Herriko subiranotasun monetario eta ekonomikoa aztergai*, Enbolike, Bermeo.
- , (2004): *Inflazioaren aurla: bankugintza berriaren jarduera*, UEU, Bilbo.
- , (2005): *Langabeziaren aurka: Bankugintzaren garrantzia*, Elhuyar, Usurbil, Gipuzkoa.
- Wicksell, K. (1898/1965): *Interests and prices*, Kelley, New York.





